

...eta

# Kitto!

826 zkia.  
2012-XI-23



**Etxebizitzaren Proiektuak eta Erreformak:  
Izogailuak, Fatxadak, Teillatuak...**

Oñate, 27 esk. eskuinta. 3<sup>o</sup> azkera.  
20500 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel.: (+34) 943 820 407  
E-mail: info@eslaban.com

[www.eslaban.com](http://www.eslaban.com)





Irribarreak  
gaztetu egiten gaitu

 **bista eder**  
clínica dental · hortz klinika

**Inplante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak**

Bista Eder Hortz Klinika  
**Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-**  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

R.P.S. 149/12



Isasi 20 - behea  
eibarbus@eibarbus.com  
www.eibarbus.com

Bulegoa: 943 20 17 33  
Garajea: 943 17 34 99  
Mobila: 629 48 15 92  
Faxa: 943 70 16 20

- Bertoko eta nazioarteko **BIDAI**AK
- Enpresa eta eskola **GARRAIO**AK
- TXANGO**AK

**Ei**bar**bus**  
autobusak

# ASTEAN ESANAK

"Independentzia ez da aukera bat, behar bat baizik, herri gisa biziko bagara. Esate baterako, Katalunian gizarteak hartu du buruzagitza; hemen, berriz, politikariei eman diegu gure konfiantza eta herriak kemena galdu du"  
(ANE ABLANEDO, IRAKASLEA)

"Tasa berriekin, askok Justiziara ezingo dute jo. Bere kaleratzeari helegitea jartzeko, langile batek 500 eta 750 euroren artean ordaindu beharko du. Eta Gorenera jotzen badu, orduan 1.300. Gure lana %40an jaitsiko da"  
(TXOMIN ARIZMENDI, ABOKATUA)

"Estresaren aurka, atsofitzak dioen moduan, ibili egin behar da eta ariketak egin. Podometroa erosi eta egunero 12.000tik gora pauso egitea izan daiteke neurririk egokiena. Giza-harremanak ahaztu gabe, jakina"  
(J. ENRIQUE CAMPILLO, SENDAGILEA)

"Txikiteoari esker, sekulako dirutza aurreztu dugu psikologotan. Txikiteoen kuadrillak ez dira giza multzo zurruna: mundu guztia onartzen dute, norberaren pentsamoldeari erreparatu gabe"  
(MARINO MONTERO, BILBOTARRA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

IZARDI LARRI.- Sukarrak edo beldurrak eragindako izerdia. Gaztelerazko 'sudor frío'. "Lehelengo hotzikaria eta gero izardi-larrixa etorri jata".

IZARDITSU.- Izerbera, izer asko botatzeko joera daukana. "Ertziltarrak, danak izarditsuak".

IZARRATU.- Izarrez betetako gaua. "Zeru izarratuan edertasuna!".

## eskutitzak

### MENDE ERDIKO LANA ERREKONOZITZEN

**Zorionak**, Don Felix, 50 urte egin ditzuzelako Azittaingo gure elizan, 1962tik 2012ra arte. Eta bihotzez eskerrak emon nahi detsugu zure "espíritu potente" horregaittik, bera izan dalako gaur egunian Azittaingo parrokiara hau barri, ttukun eta moderrua lortzeko bihar izan dogun motorra.

Don Felix Bergara Zurutuza Eibarren jaixo zan 1930eko uztailaren 10ian. Gazte gazetetik odo-lian daroia edozeiñeri laguntzeko mamiña eta laster igarri zeban Jaungoikuaren deia. 1954an seminariora jua zan apaiz ikasketak egittera eta, zortzi urte geruago -1962xan- Jaime Font y Andreu-k gortzaiñak apaizgintza sakramentua emon zetsan.

Gero, Madrillera jua eta lau urte egin zittuan Gizarzte Zientziak ikasten, Leon 13 Institutuan. Ikasketak 1966xan amaitsu eta Eibarrera bueltatu zan.



1968xan Azittaingo parrokiara etorri eta, danon zorionerako, parroko izendatu zeben... gaur arte.

Adiskidetasunez, zure eliztarrak!!!

**AZITTAINGO ELIZTARRAK**

### SARRERAK AGORTUTA

Datorren abenduaren 1ean eta 2an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizun berria, "sentitu, pentsatu, ekin" izenekoa, izango da Eibarran. Azkeneko hiru asteetan sarrerak salmentan izan eta gero, dagoeneko agortu dira sarrera guz-

tiak. Lerro hauen bitartez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio, bereziki, sarre-  
ra horrek saltzen lagundu diguten hiru dendei: Gozoki, El tio palancas eta E&M.

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA**

### ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Datorren barixakuan, San Andres eguna dela-eta, ez da alerik izango. Hurrengo zenbakia abenduaren 5ean kaleratuko dugu (eguztenera aurreratuko dugu, aste horretako barixakua zubiak erdian hartzen duelako). Barkatu eragozpenak.



**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTA)**

**kutxa** gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Euskal Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria

# San Andres gastronomikoak: Ondo janda majo!!!

*Herriko jai hauetan gauza bat ziurra bada, hori gosez ez garela hilko da. Aukera ezberdinak baitaude ondo jateko eta, hortik aparte, hainbat jaki berri dastatzeko: hasi pintxo lehiaketekin, Txistorraren Egunarekin jarraitu eta bakailaoaren inguruko lehiaketa eta ekitaldiekin jarraitzeko.*

## X. Txistorraren Eguna

Bihar bertan hamargarren edizioa beteko duen ekitaldia izango dugu eskura. Ohikoa denez, egun osokoa izango da Eibarko Txirindulari Elkarteak antolatutakoa: ea aurreko urteetako baino eguraldi hobearekin ospatzen duten. 12.00-etan etxafferoak jaurtiko dira eta ekitaldia hasiko, Jose M<sup>o</sup> Arrazola "Maltza" k eta Doroteo Urkiak egingo duten txotx-arekin. Txistorra eta edaria saltzen hasiko dira jarraian, eguerdi osteko 15.00ak arte. 12.15etatik 13.00a arte Marqués de Saka ganadutegiko Asier Arrizabalagaren zezentxo eta poniak izango dira 15 urte-tik beherakoentzat T. Etxeba-


ria kalean, Elgoibarko dultzaineroek kalea girotuko duten bitartean. 13.00an aurtengo Memorial Valenciaga lasterketako II. Argazki lehiaketako sari banaketa egingo da. Ondoren, 15.00etan, antolatzaileek anoa hartzeko tartea izango dute Kamarroak soziedadean.

Arratsaldean, berriz, disko festa izango da Arnoa taldearekin, 18.00etan hasi eta 21.30ak arte. 18.30etan hasiko da berriro txistorra eta edariaren salmenta, handik ordu erdira Ustekabe txaranga hasiko da kalea alaitzen eta, egunari amaiera emateko, 21.30etan zozketa handia egingo da: 3.200 euro izango dira sarietan.



## Bakailaoa protagonista

Eibarko Bakillauaren Kofradixak geratu barik egiten du lan egun hauetan, baita gazteenak produktu horretara gerturatuz ere. Aurreko domekan jokatu zen Eskolarteko IX. Lehiaketa Untzagan, 12 eta 16 urte bitarteko 32 bikoterekin eta etzi izango dute euren egun handia. 11.30etan helduen bakailao txapelketaren edizio berria izango da jokoan Untzagan (39 bikote) eta, ordubete geroago, kofrade berrien (Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Ander Romarate eta Ibon Uzkudun) zin egite ekitaldia izango da Portalean, Goruntz-en saioarekin. Bazkaria izango dute jarraian Unzaga Plaza hotelean.



Martitzenean txokolate dastaketa egin zen Kulturalean. S. HERNANDEZ

## Azaro Gastronomikoa Arrate Kultur Elkarte

**Arrate Kultur Elkarteak, urteroko moduan**, San Andres jaien inguruan Gastronomía Azaroan ekimena antolatu du. Batetik, martitzenean txokolateari buruzko hitzaldi-dastaketa hartu zuen, Anton Azpiasuren esku-tik. Eta, bestetik, Eibarko tabernarien arteko IX. Pintxo Lehiaketa San Andres Saria antolatu du, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Eibarko Udalaren eta herriko ostalarien laguntzarekin. Lehiaketan 30 tabernak hartuko dute parte. Eurretako bakoitzak pintxo bat aurkeztuko du eta atzo eta gaur barran ikusgai ipini beharko dute, bezeroek kontsumitzeko moduan, euro bat eta 2 euro bitarteko prezioan. Hauek dira parte hartuko duten tabernak eta lehiaketarako prestatutako pintxoak: **Agifiaspi** (*Gilda retrofittinga*); **Akara** (*Porru eta buztan rabioli faltsua, porrua, buztana eta sagarra*); **Ambigú** (*Itxurbitxa*); **Amesti** (*Aixola*); **Anardi** (*Deluxe Ondoa, gazta krema, gatz petaloak*); **Arkupe** (*Arkupe bakailaoa*); **Aterpe** (*Karolina, solomilloa eta moussea*); **Azkena** (*Azkenita*); **Batzokia** (*Masail iberiko melosoa brik pastaz batua bere sal-*

*tsan, masail kirrikarria brik pastaz batua*); **Birjiñape** (*Principe Gailetak, barazki gaileta ondo kremaz betea*); **Bossa** (*Ortu Mendi, piperra, gaztaina eta onddoak*); **Cepa** (*On egin!, oinarria: teja eta letxuga. Odolkia, bakailaoa eta onddoak saltsa ezberdinekin eta berdurez hornitua*); **Depor** (*Udazkeneko iberikoak*); **Foxter** (*Txipiariak berenjenarekin*); **Iruki** (*Iruki Turbantea, Idiazabal gazta, intxaurrek eta sagar krema*); **Karrika** (*Nori? Guri?, Nori alga, arroza eta garaiko produktu ekologikoak*); **Koskor** (*Antxoille pakete, antxoillak...*); **Kultu** (*Kantauriko harritxo, bieira eta hiru sorpresatxo*); **Maixa** (*Odolki souflea gindilla mermeladarekin*); **Matarife** (*Euskaldunen atsedena*); **Nuevo** (*Basoa, onddoak eta gari esparagoak*); **Oishi** (*Ortu eta itsaso solomillo, bieira, ogi opila eta berenjena ketua*); **Paulaner** (*Paulaner, txerri masail konfitatua anana karamelizatuarekin*); **Slow** (*Udazken sekretua, brik sobrea bertako odoloste, piñoi eta sagarrez betea*); **Su Beroa** (*Ave Txipi!, txipiak, txangurroa eta Zesar saltsa*); **Terraza** (*Plast Pelotak*); **Trinkete** (*Trinkete, perretxikoak*); **Txoko** (*Zapore fusioa*); **Zazpi** (*Edulis Patata, patata, gaztainak, kipula, edulis boletusa eta esnegaina*); eta **Zubi Gain** (*Bulkano, ahuntz gazta, micuita, kipula eta saltsa gazigozoa*).

# 72 postu San Andres Azokan


*laz baino 12 postu gutxiago izango ditugu aurten San Andres Azokan. Azken urte hauetan kopuru horren bueltan ibili da parte-hartzea: iaz 84 postu egon baziren, 2008an 82 izan ziren eta 2009an eta 2010ean 75. Aurten zeozer gutxiago, baina baita gertuago ere: azokak Untzaga plazako alde biak hartuko baititu eta Txaltxa-Zelaiko alde gertukoena. Aurten, gainera, ez da kasetarik ipiniko Untzagan eta ganadua Ego-Gainen izango da ikusgai, azoka pixka bat zabalduz.*

Hiru izango dira, bestalde, azoka horretan parte hartuko duten eibartarrak, hirurak ere gure ordezkari izan direnak azken urteotan: Enrike Gisasola, Aitor Gisasola eta Mari Tere Mugarza. Ganadu erakusketan, bestalde, hor ordezkartzita zabalagoa izango dute baserritarrek: Sumendixa Goikuak, Sumendixa Bekuak, Agarre, Aritxuluetak, Untzetak, Mandiolak eta Loixolak eramango dituzte euren abereak Eibar erdiraino.

Azokako 72 postuak honela banatzen dira: 28k gazta eskainiko dute, 18k ogia salduko, 13k barazkiak, seik ezitia, lauk frutak, bik loreak eta bakarra izango da txakolina jarriko duena gure eskura.

## “Amama ere izaten zen”

Horrela gogoratzen du Enrike Gisasolak bere amama Josefina “Sosolakoak” hainbat



**Hiru eibartar izango dira azokan. LEIRE ITURBE**

urtetan azokan izandako presentzia: “Urteak izan dira eibartar bakarrak izaten ginela azokan”. Azken urteetakoari jarraituz, “ogia eta gazta eramango dugu aurten. Lehen denetik eramaten genuen, baina pasa dira sasoi haiek”. Bi ekoizpen horietara mugatuta ere, sariak



ez zaizkie arrotz: “Eibarko bakarrak izanda, herriko saria irabaztea ez da zaila”, dio Enrikek txantxetan. Baina ez da bera sariak jasotzeko irrikitan egoten den horietakoa: “Noiz-baiten errieta ere egin didate jaso ez dudalako. Aukeran, sariak baino hobeto ikusten dut nik dietak ipintzea”.

Azokaren bezperan, aurreko egunetan “gaztaiak garbitu eta ogi gehiago egiten” emango dituzte Sosolan. “Gureak ez du postua dotoretzea eskatzen, barazkien kasuan moduan”. Jendeak erosten duen galde-tuta, Eibarrek duen ospe ona aipatzen digu Enrikek: “Azoka askotara jendea ikustera joaten den moduan, gurean dirua gastatzen dela esaten da, hemen moduko gutxi daudela. Egia esan, ez dugu krisiaren



**lazko San Andresetako sari-irabazleak.. LEIRE ITURBE**

eraginik nabaritu”. Eibarko baserritar gehiago egoteko ahalgina egin beharko zela uste du, “azokak kalea girotzen duelako eta tabernei-eta mesede egiten”.

Barruko produktuak ere eramango dituzte: kalabazak, patatak, tipulak. Egunero izaten da bere ama Francisca Merkatu Plazan, euren baserriko produktuak saltzen, eta 30ekoa egun berezia da eurentzat: “Pare bat egun lehenago hasten gara barazkiak prestatzen”. Iaz, Eibarko onena izateaz gain, “erakusmahaietan bigarrenak izan ginen” dio Aitorrek. Zeozer eskatzekotan, “aterpe gehiago akaso”, dio berak. Ondo ikusten ditu aurten egindako aldaketak, “Epaitegi inguruan baino, jende gehiago ibiliko delako Untzagan; jendeari gauzak gerturatzea ondo dago”. Eguraldiarekin dago kezkatuta: “Uste

**Aurtengo azokak Untzagako plaza biak hartuko ditu batez ere. LEIRE ITURBE**



## Bost urtetan martxa hartuta

Aitor Gisasolak bost urte dararamatza azokan parte hartzen. Aurten ere han izango da, “azalgak, porruak, borrajak, eskarolak, letxugak, azak, brokoliak... jendeari eskaintzen”.

dut txarra iragarri dutela datarren asterako, baina hori ez dago gure esku”. Prest dago, dena dela, goizeko 06.00etan jaiki eta arratsaldeko 14.30ak arte beharrean jarduteko. Produktu freskoenekin!

BELARRITAKO  
KARRATUA:  
34,60 euro

ZINTZILIKARIO  
KARRATUA:  
18 euro

HARMARRIA  
ZINTZILIKARIOA:  
23,60 euro

PULTSERA:  
46 euro

HAUTSONTZI HANDIA:  
9,30 euro euro

ESPATULAK:  
12 euro

UMIEN KAMISETA:  
20 euro

KAMISETA BERTSO A:  
15 euro

KAMISETA BERTSO B:  
15 euro

TXANPONETAKOA:  
4 euro

GERRIKO POLTSA:  
12 euro

KITTO-AMANTALA:  
10 euro

KITTO-AMANTALA:  
15 euro

ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

EGUZKILORE ZINTZILIKARIOA:  
30,20 euro

KATEA:  
20 euro

NARRUZKO PULTSERA:  
11,80 euro


ARBOLARAKO  
OLENTZERO:  
3,50 euro

KAMISETA NAFARROA:  
12 euro

KAMISETA REVOLUTION:  
17 euro

Etorri Olentzerori zerrenda  
egiten laguntzera. Egunero,  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN  
bulegoan (Urkizu, 11)  
**ASTELEHENETIK BARIKAKURA**  
**10.00-13.00/16.30-19.30**

**IKUSI,  
AUKERATU eta  
EGIN ENKARGUA!**



TxotxongiLOA B:  
35 euro

TxotxongiLOA A:  
35 euro

# ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkartea



KARRIKIRI  
IRISKIDU EUSKALDUNEN ELKARTEA



AURREZ AURRE: 12 euro



BEGIAK LEKUKO: 15 euro




ERRIAK: 16,70 euro



FOLK-LORE-SORTA: 10 euro




HERRI MUSIKA TA DANTZA: 11 euro



IBILEAN: 18,50 euro



NAFARROA BIZIRIK: 12 euro



OROIMENAREN ORAINA: 19,65 euro



XABIER LETE ZUZENEAN: 24 euro



GARTXOT: 14 euro



TXANTXARIAK: 20 euro

DISKO,  
DVD ETA  
LIBURUAK



ZORION ARGIAK: 16,70 euro



KAFE ALEAK: 15 euro

HISTORIA NAFARRA: 18 euro



# Musika entzun eta dantzan egiteko hainbat aukera



## ADOLFO JAINAGA, SOIÑUJOLIA "Umiak eta gurasuak alkarrekin urtetzen dabe Plazara Dantzara"

San Andres egunian 12.00xetan ekingo detse saiuari Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak Untzagan, Narbaiza eta Gorrotxategi bertsoariarekin. Ordu erdi geruago Plazara Dantzara erromerixari ekingo detse Kezka dantza taldekuekin batera.

**- Zelako girua ikusten dozue taula gaitietik San Andres egunian?**

Oso giro polita egoten da, bestiak beste umiak eta gurasuak, danak alkarrekin dantzan ikusteko aukeria egoten dalako. Gehixenetan gurasuak umiak dantzara gure aurretik bidaltzen dittugu, baiña holako egunian ez da holakorik pasatzen. Oin momentuan Kezka dantza taldea, umiak ez eze, nagusixen talde batzuk be badagoz eta edade guztietako jendia alkarrekin nahastuta dantzan ikusiko dogu atzera be.

**- Gaitiera, basarritar jantzita, Eibarren bestela nekez ikusi geinkian irudixa.**

Bai, holan izaten da, sarritan umiak eskaparatierra moduan jantzita ipintzen dittugu eta gero nagusixak ez gara basarritar jantzen, baiña azken urtiotan badirudi hori kanbixatzen doiala eta nagusixak be animatzen goiazela.

**- Eta musikari begira, zelako piezak jotzen dittuzue?**

Danak dantzarako pieza errezak izaten dira. Fandangoa, arin-ariña, jota, porrusalda, kalejira... Hórretxekin batera Iparralde eta Nafarroako batzuk, Okzitanian polkaren bat, balsak, Mexiko aldeko doiñuak, piskat danetarik sartzen dogu egun horretarako errepertorixuan.




## Sanandres alternatibuendako programia

**Eta Jaixak Herrixak Herrixandako** alkartiak eta Gazte Asanbladak San Andres bezperarako programia ziheztu dabe: datorren egunian 19.00etan trikipoteua hasiko dabe Untzagan eta 22.00etan Urkizun afalduko dabe (txartelak 6 eurotan ipiñi dittue salgai Karrika, Depor, Buenos Aires eta Balkoi tabernetan). Jarraixan, gaztetxian karaokian kantatzeko aukeria eukiko dabe nahi daben guztiak. Hori bai, antolatzailliak jendiar basarritar jantzeko eskatzen detse eta, bide batez, baten bat antolatutako jardueretan laguntzeko prest badago, eureri esan eta gustora emongo detse zeregiñen bat.


## Barricadaren kontziertua Sanandresetan

Lambretta Klubak eta Udalak antolatuta, bixar 23.00etan kontziertua emongo dau Barricadak Astelena frontoian. Iruñako Txantrea auzuan 1982xan sortutako talde ezagunak bere lanik barrixena, iaz grabautako Flechas Cardinales diskua presentatzeko zuzeneko emanaldixak eskintzen dihardu eta Eibarren be taldiaren abesti barrixak entzuteko aukeria eukiko dogu bixar bertan, lehendikan ezagunak egitten jakuzen beste batzuekin batera. Sorreatik Barricada-ren ahotsa izandako Enrique Villarreal "El Drogas"-ek iaz taldea laga eban bakarkako proiektu barrixari ekiteko, baiña halanda be, Barricadaren betiko estiluari eusten detse gaur egunian taldea osatzen daben Javier Hernández, Alfredo Piedrafita, Ibon Sagarna "Ibi" eta Ander Izetak. Baten bat azken orduan animatuz gero, bixar Astelenako leihatillan sarriera erosteko aukeria eukiko dau (25 euro).



## Diskua aurkezteko jaialdixa

**Bestalde, San Andres egunak hilleko** azken barixakuarekin bat egingo dau eta, horregaittik, hillero presuen eskubidiak aldarrikatzeko Eibarko Herri-rik antolatzen daben ekitaldixa berezixa izango da. Ixidro Gabirondo taldeko ordezkariaren berbetan, "gure lehelengo helburua muturreko egoe-  
rak gairiditxia da. Mikel Zarrabe eibartarrak abenduaren 1n kartzelan 23 urte beteko dittu eta honezkeroko behin-behiñeko askatasuna euki biharko leuke. Eta preso eta iheslari guztiak Euskal Herrixan egoteko eskubide osua bihar dabe, baita Puerto de Santa Marian zokoratu-  
tuguan Ibon Muñoa eibartarrak be".



Ekitaldixan musikia izango da protagonista. Josu Gil kantautoriak iaz Ibon Muñoak argittara emondako "Ametsen txokoan bizi naiz" poema liburutik batzuk hartu eta musikatu zittuan eta gero beste talde batzuk bersiñuak egin dittue, hamendik pare bat atera argixa ikusiko daben diskua grabatzeko. Grabazi-

ñuan Eroa Nazan, Napoka Iria, Norman, Ekinocio, Josu Gil eta Mikel Arrietak hartu dabe parte eta Mikel Zarraberen irudixekin osatutako liburutxo batekin batera kaleratuko dabe diskua. Jaialdixa hillaren 30ian izango da Txaltxa Zelaixan, 19.30xetan hasitta eta diskuan parte hartu daben guztiak (Ekinocio izan ezik) zuzenian jardungo dabe.



# Bertso jaialdia baino askoz gehiago

*...eta kitto! Euskara Elkarteak, San Andres bertso-paper lehiaketako sari-banaketaren harira, urtero antolatzen duen bertso jaialdia berritasun bat baino gehiago dakar aurten. Portalean izango da, betiko moduan, baina **domeka** arratsaldera pasatu dute aurten: arratsaldeko **18.30etan** hasiko da, sari-banaketarekin, **19.00ak** inguruan bertso jaialdiari ekiteko. Ekitaldian puntako bertsolari gazteak izango dira -hauek ere urteetan aurrera badoaz ere- eta gure herrian lehenengo aldiz egingo den saio musikatua eskainiko dute. "Bertso mundura erakartzeko modu gozoenean", adituenean esanetan.*



Bertso-paper lehiaketako iazko irabazleak. LEIRE ITURBE

A rkaitz Estiballes bertsolaria Bizkaiko txapeldu-na da. Ez hori bakarrik, aurtengo finalerako ere zuzenean sailkatu zen aurreko asteburuan egindako saioa irabazita. Fin dagoen seinale. Beñat Gaztelumendi bigarrena izan zen iaz Gipuzkoako txapelketan eta Alaia Martin hirugarrena txapelketa berean. Eta Uxue Alberdi, idazteaz gain, plazarik plaza dabil azken urte hauetan. Laukote bikaina, beraz, Portalean izango duguna etzi arratsaldean. Galdakaotarrantzat Bizkaiko txapelari begira prestaketa bikaina izan daitekeena aukera polita dute donostiarrak, oartzuarrak eta elgoibartarrak saioa biribiltzeko.

Eurekin jardungo du **IKER IRIARTE** gai-jartzaileak eta, nola ez, hor izango dira Ixak Arruti gitarrarekin eta Eneko



Iker Iriarte izango da saio bereziko gai-jartzailea.

Sierra saxoarekin. Iriarte desiatzen dago saioari ekiteko: "Primerako kartela da osatu dutena, plaza gehien egiten dituztenekin moldatutakoa. Etorkizuna izateaz gain, laurak goi mailan dihardute bertso-gintzan".

Horrelako saio bat prestatzeak aurrelana eskatzen dio

gai-jartzaileari: "Gitarrajolearekin eta saxofonistarekin, biekin egon naiz aurretik, gaiak eta doinuak musika tonu berean joan daitezten. Alaiagoak ere izan behar dutelakoan". Bere burua, dena dela, bigarren planoan ikusten du Iriartek, "saioaren ildoari eusten". Badaki, dena dela, "hobeto edo okerrago, talde-lana egin beharko dugula". Saio musikatuak talde-sentsazioa ekartzen dio: "Zeozergatik hasi naiz hilabete aurretik gauzak prestatzen". Doinuei dagokienez, "betidanik plazan entzundakoekin batera, beste batzuk bertsogintzara ekarritakoak ere izango dira: Camarón, Calamaro eta horienak".

## Musikatuaren abantailak

Getarian hamar urte bizitzen daraman **UXUE ALBERDI** elgoibartarrak ere gogo biziz ekingo

dio saioari: "Saio dibertigarria izango da, seguru nago. Musikatua izanda, zaleak ez direnak ere erakartzeko balio du-eta: errazago sartzen da, asko laguntzen du, umoretik kargatuta, festa giroan". Horrelako saioak bereziki gustoko ditu Alberdik: "Gaiak informazio bat ematen dizu eta musikak beste bat; azken honek, gainera, asko laguntzen du emozioa lortzen edo pikarota izaten. Horretarako sortzen du erritmo egokia". Bertsolariak "akonpañatu" baino gehiago "pertsegitu" egiten dituela dio Uxuek.

Kartela ere ez zaio arrotz egiten: "Laurak elkarrekin ibilitakoak gara Santutxuko bertso eskolan, Bilbon. Hortik aparte, lagun onak gara eta elkar ondo ezagutzen dugu". Zein bertso saio duen gogokoen galdetuta, "bereziki musikatuak" diosku. "Txapelketak ez daude txarto, baina dibertitzeko aukera gutxiago eskaintzen dute, epaitua zarelako eta beldur sentsazio hori zaila delako baztertzea". Txapelketak ikasteko balio dutela sinestu arren, garrantzi handiagoa ematen dio berak gozatzeari: "Sufrimendua ezin zaio jendeari transmititu; gozatzea da funtsezkoena".

Aukera polita, beraz, etziko bertsoak eta musika entzuteko. Bost eurotan bakarrik! **Txartelak salgai daude Sagar-Bitzan, Deporren eta Kultun.**



Uxue Alberdik saio musikatuaren abantailak azpimarratu ditu.

## Gabonetako ospakizunak. SOS!!!

**B**adatoz Gabonak! Jesus jaiotza ospatzeko denbora izateaz gain, urtean zehar ikusi ez ditugun senitartekoekin elkartzeko garaia ere bada. Orain dela urte batzuetako poza eta alaitasuna, mahaiaren inguruan janari gozoak eta onak dastatzeko aukera izaten zena, azken urteotan gehiegikeriaren sinonimo bihurtu da.

Etxetik etxera, menuak zenbait ezberdutasun izaten dituzte. Baina, har dezagun etxe bateko menua argibide: hasteko, urdaiazpikoa, foie, fritoak, entsaladilla errusiarra, zainzuriak maionesarekin eta langostinoak; gero, marraskiloak saltsan; eta, gainean, kapoi erreka okaran, sagar, orejoi, madari eta ardo gorriarekin egindako konpotarekin; postrerako, euskal tradiziozko in-txaursaltsa eta mota ezberdinetako turroi, polboroi eta mazapanezko iruditoak. Eta, hori irensteko, ardo eta xanpain ugari.

Betekada, bihotzerre eta ajeak harritzen gaituzte? Zer egin dezakegu gaitz horiei aurre egiteko? Ba, zorte onez, neguko sasoiako barazkiak erabili (porruak, azak, berakatzak, kipulak, gehienbat), sufredun substantsietan aberatsak dira eta; eurak laguntzen digute gehiegikerien bidez sortutako hainbat toxina eliminatzen eta gibelaren karga arintzen. Prestatu ditzagun, biharamunerako, porrusalda on edo berakatz zopa eder bat, eta, urarekin batera, gorputzari bere era onera bueltatzen lagunduko diogu.

Gabon gaua benetan zoriontsua izatearekin, ondorio txarrak ez ditugula nahi? Mahaitik jaiki ondoren damutu nahi ez badugu, utz ditzagun beste egun baterako marraskiloak edo mazapanak eta gehitu ditzagun postrerako fruta freskoak: mandarinak eta ananak, adibidez (ematen diguten freskotasuna gustokoa izango dugu). Gure gorputzak benetan eskertuko digu eta. Gogoratu dezagun ez dela geure bizitzako azkeneko ospakizuna; beraz, ez dugula gustoko dugun gutzia derrigorrez egun batean jan behar.

EGUBERRI ON!



*Silvia Zuluaga*  
(CENTRO MÉDICO ÉIBAR  
OSASUNDEGI)ko nutrizionista

### ZER DA ETA ZELAN AURRE EGIN ZORABIO ZINETIKOARI

Bidaiak egitean agertzen den aldi bateko ondoeza da. Kasu hauetan agertzen diren sintomak honako hauek dira: aurpegiko zurbiltasuna, gehiegizko listuketa, egonezina, aharrausiak eta goragaleak, honek gehienetak goitika ekartzen du. Egoera honen izen klinikoa zinetosia da eta mugimenduak sortutako edozein egoera izendatzeko erabiltzen da.




Tratamenduaren helburu nagusia, zinetosia prebenitzeko, medikamentu antiemetikoen erabilera datza, behin zorabioa garatutakoan ez baitute eraginik erakusten. Beraz, beharrezkoa da gaixoari prebentzio neurriak buruzko aholkuak ematea:

- Mugimendu gutxieneko lekuetan eseri (itsasontziaren erdialdean, hegazkinaren hegoen inguruan, autoaren aurreko aldean, eta abar.)
- Etxanda edo erdi-etxanda ipini
- Irakurketa ekiditu
- Ez begiratu objektu mugikorrei, ezta gertu daudenei ere; beti ere urruneko erreferentzi puntuei begiratu, ikusmugaren gainetik.
- Gehiegizko berotasuna ekiditu eta aireztapen egokia bilatu
- Bidaia egin aurretik ez edan eta ez jan gehiegi. Bidaia luze bat egin behar bada, jaki arinak eta likido kantitate txikiak hartu maiz.
- Geldialdiak egin ibiltzeko eta haize pixkat hartzeko.
- Umeen arreta bultzatu eserlekuaren posizioa igoz edo-eta jostailuekin entretenituz.



### ZEINTZUK DIRA AZKEN ZIGARROA ERRE ONDOREN EMATEN DIREN ERAGIN ONURAGARRIAK



- 20 minutu pasa ondoren, nikotinaren eraginez igotako presio arteriala gutxitzen da. Bihotz maiztasuna eta gorputzeko tenperatura ez-erretzaile batenarekin konpara daitezke.
- 8 ordu pasa ondoren, CO-ren odol kontzentrazioa egoera normalera itzultzen da.
- Hurrengo egunean, infarto arriskua gutxitzen hasten da.
- 2 egun pasa ondoren, usaimena eta dastamena normalizatu egiten dira.
- 3 egun pasa ondoren, arnasketa hobetu egiten da (txirrinduan ibiltzea edo eskilarak igotzea errazagoa da).
- 3 hilabete pasa ondoren, odol-zirkulazioa hobetu egiten da eta biriketako gaitasuna %30 igo daiteke.
- 9 hilabete pasa ondoren, erretzailearen eztula deritzona desagertu daiteke.
- Urtebete pasa ondoren, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua erdira jeitsi da.
- Bi urte pasa ondoren, bihotzeko izateko arriskua maila normalera hurbiltzen da.
- Bost urte pasa ondoren, ORL-ko minbizia izateko arriskua erdira jeisten da.
- Hamar urte pasa ondoren, biriketako minbizia izateko arriskua ez-erretzaile baten berdina da.
- Hamabost urte pasa ondoren, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua ez-erretzaile batenarekin konpara daiteke.

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



**IRAZABAL**  
clínica dental

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)

ORDUTEGIA:  
Astelehenetik  
ostegunera:  
10-14 / 16-20h  
Ostiraletan:  
10-14 / 15-19h

RPS 04/02



*Sedazia arekin gustoa  
ematen du!*

Edozein tratamendu dela ere,  
eskaintzen dizkizugun  
abantailekin **BELDURRA**  
**DENTISTARI? ZER DA HORI?**

## Belaustegi Baserria

**JATETXEA**  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

*Jaietan ondo pasatu...*

**San Andres  
MENU BEREZIA**

*eta mahaian gozatu...*

**ELGOIBARKo  
San Miguel  
ganean**

**Tel. 943 74 31 02**



asteko

6.000.000

datua

euroko beherapena egin detse ospitala jasoko daben enpresariari: Cycasa, Construcciones ACR eta Lurgoienek osatzen daben UTE-k obria 18,8 milloi eurotan eskuratu dau eta 20 hillebete eukiko ditu amaitzeko.

## Indarkerixa matxistari aurre egitten

Domekia, hillaren 25a, andrazkuen kontrako indarkerixia salatzeke eguna izango da eta, horregaittik, hainbat jarduera antolatu dittue. **Mujeres al Cuadrado** alkartekuak Untzagan egongo dira, 10.00etatik 13.00era Azaruak 25aren eta genero indarkerixaren gaiñeko informaziñua emoteko ipiñiko daben karpan. Tratu txarrak jasaten dittuen andrazkueri laguntasuna emoteko alkartiak, andrazkuak osatzen dittuen beste alkartiak moduan, Zezenbide kalia daguan Andretxean daka egoitza eta eurekin kontaktuan ipiñi nahi dabenak 943700828 telefonora deittu edo m2eibar@hotmail.com helbidera deitzeko aukeria daka.

Bestalde, Udaleko Berdintasun Saillak Ema-



kumien Mahaixaren lankidetzarekin antolatutako kontzentrazioa 13.00ean hasiko da, Untzagan bertan, "Beldur Barik jarrera Eibarren" goiburuari jarraituta.



## Sinki-kuen bazkarixa

**Martitzenian juntau ziran** Sinki kuadrillakuak alkarrekin Untzaga soziedadian bazkaltzeko. Hiru lagunek eziñ izan eben taldiarekin bat egin, baiña halanda be 17 lagun juntau ziran, euretako batzuk Donostiatik lagunak ikustera etorritta. Hurrengo bazkarirako planak egitten hasitta dagoz: udaberrihan Zumaixan juntatzeko asmua dake.

## 1944an jaixotakuak jai-giruan

Zapatuan ospatu eben euren jaixa urte horretan jaixotakuak, erretratua etara aurretik piskolabisa hartuta hasi eta bazkarixa, barriz, Unzaga Plaza hotelian eginda.

## Estaziño kalekuak azokia egingo dabe

Gabonetarako, abenduaren 22rako, azokia preparau nahi dabe Estaziño kaleko denarixak eta, horretarako deialdixa egin nahi detse bertan egoteko interesa euki leikien artisaueri zein bestelakueri: edozelako eskulanetan trebiak diranak, erabiltzen ez dittuen jostailluak, diskuak eta beste gauza batzuk saldu nahi dittuenak... azokan parte hartzera animau nahi dittue. Antolatzailliekin kontaktuan ipintzeko, geltokielkartea@hotmail.com helbidera idatzi leike edo 605773424 telefonoz zenbakira deittu.



**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera


Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

# BEZeRo GUZtiE<sub>N</sub>daKO San AndRes ZORiontsuak!

## TXURRUT

*Zutik, eserita, barran  
hausnartzen, berbetan, abesten,  
egunez, gauez, asteburuan, lanegunetan,  
1,2,3... San Andres bete diru!*



ZONA WIFI

## LUR PE music

DISCO BAR

guridi rugby  
taberna



GORA SANANDRESAK!!!



## VIVALDI PUB

Eibarren  
San Juan, 9

SAN ANDRES JAI ZORIONTSUAK



birjiñape, 1 behea  
tel. 943 20 71 00

## SOKOA

## Zubi-Gain

URKIZUKO  
DORREETAN



Urklzu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

## Ego-Gain

ANBULATEGIAREN  
AURREAN




J. Etxeberria, 2 Tfnoa. 943-207165

*Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan*  
E S P E Z I A L I Z A T U A K

# autuan

## HARRERA ALKARTIA

Eguaztenian, hillaren 28xan, 19.00etan Harrera, euskal preso politikuak izandakuak sortutako alkartia presentatzeko hitzaldixa egingo dabe Arrate Kultur Elkartian. Harrera-ren helburu nagusia preso eta errefuxiatuak etxeratzen diranian laguntza eskintzia da eta horren gaiñeko azalpenak emoteko antolatu dabe hitzaldixa.



## EUSKAL HERRIXA MARTXAN

Euskal gehingo sindikalak eta eragille sozialak lan duiñaren eta eskubide sozialen aldeko mobilizaziñuak iragarri dittue hainbat herrirako, tartian Eibarrerako hillaren 26tik 30era bittartian. Herrialde maillako manifestaziñuak be egingo dira, 28xan Iruñean (19.00etan autobus geltoki zaharrian) eta 30ian Bilbon (18.30etan Jesusen Bihotzian), Donostian (19.00etan Bulebarrian) eta Gasteizen (19.00etan Bilbo Plazan).

## Pedro Zelaia tonbolia martxa betian

Zortzigarrenez ipifi dabe martxan Pedro Zelaia tonbolia, Ibarkurutzen. Txartel guztiak saldu arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatura 10.30etatik 13.00era eta 16.30etatik 20.00etara eta domeketan 12.00etatik 14.00etara. Txartel bakotxak euro bat balixo dau eta hainbat sari irabazteko aukeria dago, tartian herriko andrak egindako arropen jantzittako 200 bat kopiñ. Irabazliak



sarixak momentuan jasotzen dittue eta sari bariko txartel guztiakin, barriz, amaierian zozketia egingo dabe, Gabonetako 3 otar banatzeko. Batutako dirua misiñuetan daguezen eibartarrer laguntzeko erabiliko dabe.

## Izar Berri alkartiaren 25. urteurrena



Muzategi kalian daguean Izar Berri alkarte gastronomikua sortu zala 25 urte bete dirala ospatzeko bazkide gehixenak batu ziran aurreko zapatuan. Udaletxia atzian dakela erretratua etara eta, holako egun berezixan iñork sukaldian biharrin ez jarduteko, bazkarixa Artola jatetxian egiñ eben.



## Tattoo Circus Karrikan

Atzoz geroztik martxan dago Tatroo Circus erakusketa-subastia Karrika tabernan. Erroman 2007an presuekiko alkartasunaren alde diharduenendako topaketia izateko asmoz jaixotako ekimena Eibarren lehelengoz egingo da: hillebeteko tartian, ikusgai daguezen laneri preziaua ipintzeko aukeria izango dabe ikusliak eta abenduaren 22xan, erakusketaren azken egunian egingo dan subastan erabagigo dabe lan bakotxa etxera zeñiek eruango daben.

**METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA**

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak

Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea  
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

info@ulmar.net - www.ulmar.net

**%15eko deskontua**

*Beti Berria Bezala*

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bulebarrieta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusketeta laboa


Egokien (liga poligonar)  
Ariketa: esku eta oinuen esku zatiak  
Kiooi - Eteki - Urtearriko etxek  
Euskal Herri osoko ospitaleen herriak zaitez  
Nazio eta Nazioarteko herriak

**Mugica Ehorzketa**  
Ehorzketa

TELEFONOA (24 GRUPO)  
**943 201 951**

## Trafiko aldaketa inportantiak Torrekuan

**Amaña-Ardantza tartian trenbidia bikoiztu** eta estaltzeko biharrak dirala eta, trafikuan zein oiñezkuendako ibilbidietan aldaketa inportantiak dagoz martitzenaz geroztik. Udalak aditzera emon dabenez, biharrak urte bi iraungo dabe eta zatika egitten juango dira. Torrekua-Amaña ingurua goititik behera kanbixau eta Legarre



kalia berrurbanizauko dabenez, obriak eragiñ haundixa eukiko dau trafikuan, bestiak beste hainbat egitura (scalextic-a, barianteko hankia, San Andres Pasealekutik Amañara doian sarbidea) eraitsi biharko dittuelako.


Oin momentuan scalextic-a Torrekuekin lotzen daben hankia eta baitta Amañarekin alkartzen dabena be eraisteko biharrereri ekin detse eta, horregaittik, aurrerantzian eziñ izango da scalextic-aren azpittik pasau. Bizkaiko norantzan doiazen ibilgailluak Barrenenguatik gora jua biharko dira, Otaola Hiribidera aillegatzeke; Ertzainetxetik Eroskiraiño kontrako norantzan juango dira eta Torrekua-Otaola bietetik jaitsita, atzera be Torrekua urtengo dira.

Horretarako bialaren oiñ arteko norantza kanbixau dabe (biharrak amaittu arte beheranzko norantzan erabilliko da). Ertzainetxeko atzeko aldetik jaitsi eta Bizkaia aldera jua nahi dabena, barriz, Markeskua parian (lehengo Kantoiako bidegurutzian) ezkerretara bueltia hartzeke aukeria eukiko dabe. Eta gidarixak Amaña auzora sartzeko aukera bi dake: San Andres Pasealekua edo bariantia.

Biharrak autobusetan be dake eragiña: EuskoTreneskintzen daben Ondarroa-Mallabia linean, Torrekuan anbulategi pareko geralekua desagertu egin da eta Udalbusa ez da gehixago geratuko Legarre Behea, Z. Agirre eta W. Orbeako geralekuetan.

## Azpilikuetaen murala hillaren 29xan erakutsiko dabe

**Goititik behera barritutako tren-geltokixa**, Estaziñua, hillaren 29xan, San Andres bezperan inaugurauko dabe modu ofizialian. Ekitaldixan José Antonio Azpilikueta artista eibartarrak Estaziñorako bereziki egindako mural haundixa lehelengoz ikusteko aukeria egongo da. Murala, moduren batian, 100 urtian baiño gehixagotan Eibarko tren-geltokittik pasau diran personak irudikatzeke asmuarekin egindakua da. Muralaren egilliak berak aitortu dabenez, ez jako erreza egiñ muralian agertzen diranak aukeratzia eta, atzera be hastia tokau ezkerre, ixa seguro beste batzuk aukeratu zittuala diño.



## 1937an jaixotakuen bazkarixa



**Aurreko asteko barixakuan alkartu ziran** aurtin 75 urte bete edo beteko dittuenak, 1937xan jaixotakuak, alkarrekin bazkaldu eta ordu batzuk umore giruan emoteko asmuarekin. Eguardixan Untzagan batu eta bakotxak zapi bana hartu eban. Jarraixan taldiaren argazkixa egiñ eta bazkarirako izena emon eben 40 bat lagunak Peña Txinberara jua ziran, luntxa egittera. Txikiteuan ibilli ostian, Unzaga Plaza hotelian bapo bazkaldu eben.



Karmelo Urdangarin

## Alfako lehiaketa prozesua

**Eibar eta bere ingurunea**, sasoi batean Deba Behea deitzen genuena eta gaur egun Debabarrena, ez da inoiz atzean geratu produktu/merkatuaren arazoak konpondu behar izan dituenen. Gogoratzen hasita, 600 urtetik gorako idatziak ditugu armak egiteari ekin geniola diotenak. Baina merkatuaren inposizio horiek ziklikoak izan dira: gerretan arma asko eskatzen zen moduan, beste egoeretan ez zen halakorik izaten. Hori dela-eta, XX. mendetik aurrera, dibertsifikazioa izan zen eibartarren lehen helburua, lan horretan lider asko nabarmendu zirenez, batez ere kanpoko laguntzak eskatzeko. Lortu ere, lortu ziren helburu horiek: GAC-k bizikletak egiten euren produkzio gune bihurtu zuen Eibar. Askoz geroago, gure eskualdeko industriaren oinarri bihurtu ziren armak, bizikletak eta josteko makinak. Azken hau ia guztiz desagertzerakoan eta bigarrena ere neurri batean -Orbea kooperatiba geratu zen bakarrik-, bilakaera eman zen autoen osagaien eta zatien produkzioaren alde eta, baita, metalekin lan egiteko makina-erremintak sortzeko lanean ere. 2008an hasitako krisiari aurre egiteko enpleguari eusteko modukoa: gaur egun oraindik eusten diona.

Orain Alfako lehiaketa-prozesua dugu aurrean, zuzenean inplikatuerei eragingo diena, batez ere adin batzuetakoei. Globalki ikusita, gaititu beharreko erronka bihurtu da gure eskualderako: ea aurretik gaititu ditugun bidetik joaten den. Ziur aski, Alfa Taldeko enpresa batzuk jarraitu ahal izango dute euren jardunarekin; baina, orokorrean, dituzten emaitzek ez dute halakorik orokortuko. Giza baloreak asko aldatu badira ere, sasoi bateko arrakastak errepikatu daitezke orain ere. Zergatik ez?

**Cielito Musika Bandarentzat Santa Zeziliari eskainitako asteburua izan da atzean laga berri duguna eta musikarientzat horren garrantzitsua den hitzordua aprobetxatu dute taldearekin bat egin duten gazte biren aurkezpen "ofiziala" egiteko: Aitor Bastida eta Andoni Campos klarinetistak, 16 urterekin, gaur egun 45 bat kide dituen Cielito Musika Bandako kide gazteenak dira. Martitzeneko entseguan eman ziguten euren esperientziaren berri.**

**- Zer moduz joan zen domeka-kontzertua?**

Oso ondo. Jende asko joan zen ikustera eta dena oso ondo irten zen. Oso pozik gaude.

**- Bandarekin jendearen aurrean jotzen zenuten lehen aldia izan zen?**

Ez, aurretik beste behin kontzertua eskaini genuen Coliseoan, apirilean. Eta hortik kanpora, sanjuanetan eta beste batzuetan ere ibili gara Cielito Musika Bandarekin batera jotzen, baina domekakoa berezia izan zen, Santa Zezilia kontzertua izateaz gain gure aurkezpen "ofiziala" ere izan zelako. Bestela, bada urtebete inguru Cielito Musika Bandako entsegetara etortzen hasi ginela.

**- Nola animatu zineten bandan sartzen?**

Nire kasuan (Aitorrek) familian bertan hasi ziren animatzen, izan ere familiako batzuk, aita tartean, bandan jardundakoak dira eta eurek animatzen ninduten gehien. Eta nik (Andonik) ba ikasten eta klarinetea jotzen jarraitzearen erabaki nuen bandara sartzea.

**- Noiz hasi zineten musika ikasten?**

Zortzi bat urterekin, lehenengo solfeoko klaseetara joaten hasi ginen eta gero klarinetea ikasten jarraitu genuen J.B. Gisasola Musika Eskolan.

**- Eta zergatik aukeratu zenuen klarinetea eta ez beste instrumenturen bat?**

Nik (Aitorrek) aitak ere klarinetea jotzen zuelako eta nik ere hori egitea nahi nuelako. Eta nik (Andonik) ez dakit ba, probatzearen aukeratu nuen eta, behin probatuta, gustatu zitzaidanez, ba ikasten jarraitzea erabaki nuen.

**- Klarinete ikasle gazteak izanda, asko ikasten duzue Cielito moduko musika banda handiarekin batera jardutean?**

Ilusio handiarekin dihardugu eta benetan ere asko ikasten dugu entseguetan taldeko beste musikariekin batera ibiltzean, aholkuak-eta ematen dizkigute. Bestalde, klaseetara joaten segitzen dugu, maila bat lortu arte ikasten jarraitzea beharrezkoa delako.

**- Zuen adineko gazteek entzuten duten musika, oro har, bandan eskaintzen duzuen musika estiloarekin zerikusi gutxi izango du, ezta?**

Bai, geuk ere etxean eta lagunartean entzuten dugun musika oso bestelakoa da: ska eta beste estilo batzuetako abestiak gustatzen zaizkigu. Baina bandarekin jotzen ditugun piezak ere ondo daude eta, gainera, beti egoten da ondo estilo ezberdinetako musika entzutea, ahalik eta gehien jakiteko.



Aitor Bastida / Andoni Campos  
(KLARINETISTAK)

**"Asko ikasten dihardugu Bandakoekin"**

**Tintalur**  
Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta



Errebal, 12 - behea  
Tel./Faxa: 943 531 809  
tintalur@gmail.com www.tintalur.com

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelerratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com





# INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

28. zenbakia. 2012ko azaroa

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

# EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)

## ...eta kitted! aldizkariaren INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

### LARRAGEST. EIBAR

**HELBIDE BERRIA: Calbeton, 22-24 behea**  
**Tel. 943 20 00 12 / 690 61 07 15**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Etxea+garajea lotea	Berria. 2 logela (armairu enpotratuak), 2 bainu, egongela eta sukalde ekipatua.	230.000 €
EIBAR	Etxea+garajea lotea	Berria. 2 logela (armairu enpotratuak), 2 bainu, egongela eta sukalde ekipatua.	225.350 €
EIBAR	Egogain	Berria. 3 logela (armairu enpotratuak), 2 bainu, 2 balkoi, egongela eta sukalde ekipatua.	295.000 €
EIBAR	Muzategi	la berria. Logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela, garajea trasteroarekin aukeran.	155.000 €
EIBAR	Bidebarrieta	la berria. Apartamentua guztiz ekipatua. Argitsua eta dotorea.	168.000 €
EIBAR	Urkizu	la berria. Bista paregabeak. Pisu altua. 2 logela, 2 bainu, sukalde-jangela. Garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	F. Calbetón	la berria. Altua. 3 logela, 2 bainu, egongela eta sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Barrena (Lidl)	la berria. Aukera bikaina. 3 logela, 2 bainu, egongela, ganbara. Garajea aukeran.	199.000 €
EIBAR	Isasi	120 m <sup>2</sup> . 4 logela, 3 bainu, egongela, sukalde handia, balkoia. Igogailua. Kafefakzioa.	256.000 €
EIBAR	Egigurentarren	2 logela, egongela, sukaldea eta bainua. Igogailua. Kafefakzioa. Garajea aukeran.	180.000 €
EIBAR	San Juan	3 logela, bainua, egongela eta sukaldea. Igogailua.	135.000 €* *
EIBAR	Arragueta	Azken pisua. 2 terraza, 3 logela, bainua, egongela eta sukaldea. Igogailua. Kafefakzioa.	135.000 €* *
EIBAR	Untzaga	Apartamentua. Berritzeko. Igogailua.	74.800 €* *

\*NEGOZIAGARRIAK

Arragueta, 2 bis B-behea  
943 20 08 60

agencia  
inmobiliaria  
**Juaristi**  
A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com  
www.inmobiliariajuaristi.com

**HIGIEZINAK**  
**ARREGI**  
INMOBILIARIA

**Errebal, 20ra aldatu gara**

Tel./Faxa. 943 203 333      Mobila. 656 766 344  
www.inmoarregi.com

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!  
943 12 13 95      Bidebarrieta 29

**INMOBILIARIA ESTUDIO**  
**PS XXI**

Higiezin-zerbitzuak  
eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. 943 74 23 06      20870 ELGOIBAR  
www.inmobiliariapsxxi.com

# AUKERA PAREGABEA ELGOIBARREN

**UBITARTE**  
BIZIGUNEA



**3 LOGELETAKO  
ETXEBIZITZAK**

Lehon ~~230.000~~ €-tik

Orain 190.000 €-tik

Sukaldeak barne

**Duplexak 215.000€-tik aurrera**

Tel.: 943 744 303  
943 812 462

Informazio gehiago:  
San Bartolome, 14 beheak  
[www.ubitarte.com](http://www.ubitarte.com)




943 201213  
633 483956



*Ibai Ondo*  
inmobiliaria

IBAI ONDO INMOBILIARIA EGITU ZURE ETXERD OGIA  
PREZIO GONIBOZGONETAN



**Larragest**

**INMOBILIARIA / ASEGURUAK**

F. Calbetón, 22-24

943 200 012

690 610 715



## Uni-ko ikasleak eta zuntz optikoa

Uni Eibar-Ermua BHI-ko ikasleak Ermuan izan ziren orain egun batzuk, I. Berrikuntza Teknologikoa Hiritarren Zerbitzura Jardunaldiaren harira antolatutako jardueretan parte hartzen. Informatika zikloan diharduten ikasleek, besteak beste, etxeetarako doan zuntz optikoak (FTTH edo Fiber To The Home delakoak) eskaintzen dituen aukeren berri jaso zuten Ermuko udaleko teknikarien ahotik eta, horretarako, kalean dauden instalazio fisikoe-tan hasi eta Izarra Center-en dagoen datu baserainoko bisita egin zuten. FTTH telekomunikaziorako teknologia berari egokitutako zuntz optikoen erabilera oinarritzen da eta, besteak beste, abonatu-entxeetarako telefonoa, banda zabaleko internet eta telebista, hirurak batera eramatea ahalbidetzen du.

## Autoenplegurako ikastaroak

Negozio-ideiak garatzeko interesa duten eta Lanbide Heziketako ikasketak amaituta dituztenen artean autoenplegua bultzatzeko ikastaroa hasi zuten azaroaren 5ean Armeria Eskolan Urrats Bat programaren barruan. Eskaintzen zituzten plaza guztiak bete egin zirela ikusita, Gabonak baino le-



hen antzerako beste ikastaro bat antolatzeko asmoa dutela aurreratu dute eskolako ardura-dunek. Ikastaroak Lanbide heziketako ikasketak amaitzean enpresa proiekturen bat garatu nahi dutenentzat pentsatutakoak dira, sortze-prozesuan gazteei laguntza eskaintzeko.



## Armeria Eskolako Ikasketa Sariak

Azaroaren 13an banatu zituen Armeria Eskolako Gurasoen Elkar-teak 2011-2012 ikasturteko Ikasketa Sariak. Ikasleen espediente akademikoak kontuan hartuta ematen diren sariak jaso zituzten ikasleak honako hauek izan ziren: Denis Fernandez Bello eta Julen Froufe Rios ("Instalazio elektrikoak eta automatikoak" zikloko ikasleak); Iñaki Landa Txurruka eta Xabier Olabe Odriozola ("Produktzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan" ziklokoak); Jokin Agirre Sánchez ("Ekipu industrialen mantenimendua" ziklokoak); eta Garikotiz Del Barrio Lugarizaristi eta Mikel Caeiro Pires ("Erregulazio eta kontrol automatikoko sistemak" ziklokoak).



## Harkaitz Cano Udal Euskaltegian

Orain egun batzuk Harkaitz Canorekin solasaldia izan zuten Udal Euskaltegiko ikasleak. Idazleak "Ilustrazioak literaturan" gaia jorratu zuen eta ondoren Iraleko ikasleak Canoren nobela berrienari buruzko galderak egiteko aukera izan zuten. Harkaitz Canok Euskadi Literatura saria jaso berri du Twist eleberrirengatik.

### Ketesu 2010

*bulego eta kolektibitateerako instalazio osoak eta materiala*

*altzaririk, ontziak, margerak, liburutegiak...*


**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

Estazio 14 kalea, 12  
20000 Eibar

tx: 943121973 / 943121974

fax: 943127000

email: info@ke2010.com



## OGI-BERRI URKIZU

o k i n d e g i a

'Zure gustorako ogia'

Urkizu, 14 - behe-ekz. / Tel. 943 53 06 91



**Policlinica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa**  
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-  
Telefonoa: 943 25 61 00

# POLIKLINICA GIPUZKOA

## BIZITZA ALDATUKO DIZKIZUTEN UROLOGIAKO AURRERAPENAK

**Madina eta Azparren Gipuzkoako Poliklinikako urologoek konferentzia emango dute Portalea Udal Kultur Etxean, azaroaren 27an, 19.30etan. Sarrera librea, edukiera bete arte. Hitzaldiaren ondoren, adituen mahai-inguru bat irekiko da bertaratutako jendearekin.**


Ion Madina eta Javier Azparren doktoreek, Gipuzkoako Poliklinikako Urologia Zerbitzuko espezialistek, honakoa baieztatzen dute: *“40 urte baino gehiago dituzten gizonen %40 inguruk erekzioaren disfuntzio mailaren bat jasaten dute, eta maiz, faktore fisiko zein psikologikoen konbinazio batek sortzen du hori”*. Doktoreek azpimarratzen dute azterketa mediko egoki bat oso garrantzitsua dela, *“erekzioko disfuntzioa –diote- sendagaien albo-ondorioek edo azpian dauden gaixotasun fisiko batek sortu dezakeela; hala nola, diabetesak, bihotz-hodietako gaixotasunek, tentsio altuak, edo gai psikologikoeekin lotuta egotea, esate baterako, estresak edo prostatako kirurgia baten ebakuntza ondoko eraginek sortua egon daiteke”*.

Prostata eta Da Vinci Prostatak ez du inolako rolik jokatzeko zakilaren erekzioaren mekanismoan, nahiz eta harreman zuzena duen horretan inplikaturako nerbioekin. Gogoratu behar da 40 urtetik aurrera, gizonak prostata-arazoak izan ditzakeela; 50 urterekin, erdiak baino gehiagok sintomak izan ditzake eta 80 urtetik aurrera, gizonen %90k jasaten dituzte.

**“Da Vinci kirurgia-errobotak kirurgia irekiaren arriskuak ezabatzen ditu eta laparoskopoiaren abantailak gainditu”**

Arazo horien guztien arrazoi ohikoena prostatako adenoma da, prostatako hipertrofia onbera edo tumore onbera izenarekin ere ezagutzen dena, *“horrek organo hori handitzen du eta txiza egiteko zailtasunak sortzen ditu, askotan oso larriak direnak”*. Gernu-hodia oztopatzen duten eta tratamendu medikoarekin konpontzen ez diren adenoma (tumore onbera) larrietan eta prostatako kancerretan *“kirurgia beharrezkoa izan daiteke”*, diote espezialista horiek. Da Vinci kirurgia-errobotarekin prostatako kancerreko 150 ebakuntza baino gehiago egin ondoren, Ion Madina eta Javier Azparren doktoreek hurrengo abantaila nagusiak zehazten dituzte: *“Ebakuntza ondoren min gutxiago izatea, odol-galera gutxiagorekin eta infekzio-arrisku txikiagoarekin. Orbain txikiak uzten ditu eta azkarrago osatzeko aukera ematen du. Kirurgia horren albo-eragin ohikoak, txizari ezin eustea edo sexu-inpotentzia, modu nabarian murrizten dira”*. Egun, Estatu Batuetan 900 errobot daude, 80 Europan eta 30 munduko beste lekuetan. Gipuzkoako Poliklinikaren sistema hori izatea erabateko luxua da gaixoentzat.


Telefonoa: **943 00 27 16**  
[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)



**GURE GAIXOEN ESPERIENTZIAK EZAGUTU ITZAZU HEMEN: 943 00 27 07 telefonoa**

**OSASUN**  
POLIKLINICA GIPUZKOA

**BIZITZA ALDATUKO  
DIZUTEN AURRERAPENAK  
UROLOGIAN.  
EREKZIO-DISFUNTZIOA  
ETA PROSTATA**



**ORRAN**  
AZAROAREN 27an 19.30 h

**TOPALAN**  
Eibarriko Portalea Udal Kultur Etxea

**POLIKLINICA GIPUZKOA**  
[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)

## Eibarrek Bilbon jokatzekoa den partidua atzeratu daiteke

Athletic-ek Hapoelen (Israel) jokatu behar zuen partidua atzeratuta, horrek eragina izan dezake Eibarrek hasieran hilaren 28an jokatzekoa zen partiduan: Europako txapelketarako norgehiagoka datorren astean jokatzeko erabakitzen badute, Garitanoren mutilen aurkakoa hurrengo asterako laga beharko lukete. Bestalde, klubak sarrera gehiago eskatu diz-

kio Athletic-i, salgai jarritako 300ak berehala saldu zirelako. Bilbokoek 478 sarrera bidali zizkieten Eibar KEko zuzendaritzari, baina 178 konpromisoendako gordeko dituzte. Kanporaketaren bufanda oroigarria ere salgai dago klubaren bulegoetan, 12 eurotan.

### Bihar Logroñon

Kopako partiduen aurre-




Errasti Iturrasperi kendutako baloiarekin.

tik, baina, liga du Eibarrek. Bihar Las Gaunasen jokatu da, 17.00etatik aurrera, U.D.

Logroñés-en aurkako partidua, ligako 14. jardunaldiari dagokion norgehiagokan.


## Hiru eibartar zortzi onenen artean Zarautzko squash-ean

Sergio Salgado hirugarren, Jon Losada bosgarren eta Alberto Ferreiro zortzigarren amaitu zuten asteburuan Zarautzen jokatuak IV. Euskal Sofa squash torneoan. Losadak eta Ferreirok nor baino nor jardun zuten final-laurdenetako partiduan eta Debakoak, 2-0 galtzen joan eta gero, buelta eman zion partiduari finalerdietara pasatzea lortzeko. Gero amore eman behar izan zuen Jose Luis Unanue txapeldun izango zena aurrean.



## Urkiko neskek 15-0 egurtu zuten Aloña Mendi

Azken partiduetako martxari jarraituz, nesken Urkiko lehen taldeak erraz irabazi zion Oñatiko Aloña Mendiri. Amaia (argazkian) izan zen goleatzaile nagusia, bost tantorekin, Ainhoak hiru sartu zituen eta Jonek bi, besteen artean.



## Parekotasuna areto-foballean

Sei talde daude lau puntutan: Garajes García 20 puntu ditu, Txokok 19, Durangok eta Alkidebak 18 eta Koskorrek eta Tankemansek 16na. Aurtengo liga inoiz baino borrokatuagoa dago eta bihar, 09.00etan, Durango eta Txokoren artekoak gauzak argitu ditzake neurri batean. Goikaldeko besteek neurketa errazak dituzte.



Urkizu, 18 — 943 120194

# MUGIKA



**ONDO PASA**      **Sanandresak**

**ESPEZIALITATEAK:** ~ Odolkiak  
~ Plater prestatuak

**F. CALBETÓN, 23**  
TEL. 943 53 05 26



*Gosariak eramaten ditugu etxera asteburuetan*  
*Enkarguak etxera eramaten ditugu*



**OGI BERRI**

Ogietan aukera zabala Ogi beroa  
Tartak Pastelak Sanblasak  
Arrautzak Esnea  
Edariak Kafea  
Prentsa Aldizkariak

Egunero: 07.30-21.00 Jaiegunetan: 07.30-20.00

**Hemen, kalitatea**

# BEZeRo GUZtiEndaKO SanAndres Zoriontsuak!

  
☎ **943 20 24 01** Egunero  
- **Gosariak** 07.00etan  
- **Plater konbinatuak** zabaltzen  
- **Eguneko menua** dugu

*Iturri*  
*pintxo eta  
kazuelatxoak*  
943 70 05 22 

T.Etxebarria, 21 Tel. 943 20 70 07  
  
ONGI-ETORRI!  
CAFÉ-RESTAURANTE

943 20 61 43  
  
**ALDATZ**  
**taberna**  
*Martxa nahi  
baduzu... Zatoz!  
Zure zain gaude*  
San Juan, 3


Isasi, 2  
  
TEL. 943-702691  
- *Gosariak 06.00etatik aurrera*  
- *Eguneko menua: 16 euro*  
- *Karta (brasa)*  
- *Gastro-pub*

  
UNBE TABERNA  
\* Pintxoak  
\* Bokatak  
\* Bazkariak  
Bate Ordez 31 ☎: 943 70 00 81  
EGUNEROKO MENUA

  
943 20 11 26  
[www.restaurantechalcha.com](http://www.restaurantechalcha.com)

**Julian**  
**Etxebarria, 18**  
astelehenetik barixakura,  
10.30ETATIK AURRERA  
zapatu eta domeketan  
11.30ETATIK AURRERA  
Beste urtebete  
zuekin!  
Ondo pasa  
Sanandresak!  
**Tas-Tas**  
**kafe**  
**antzokia**

Taberna - Snack  
**POZKARI**  
*Pintxo beroetan eta  
hotzetan espezialistak*  
J. Etxebarria, 11  
EIBAR ☎ 943 70 20 37



## Unamunzaga -Bengoetxea Klub Arteko finalean

Eibarko Klub Deportiboko 1. mailako senior bikoteak 22-17 irabazi zuen Hernanin, horrela Esnal-Lizeaga bikotea kalera-tuz. Bihar finala jokatuko dute, hori ere Hernanin, Azkoitiko Juaristi-Iparragirre bikotearen aurka. Asteburu honetan Kluben Arteko torneoko partidu bakarra izango dute Deporrekoek etxean, domekan 11.15etan Ipurua kiroldegian jokatuko dutena: hor Ruiz-Larrauri jubenil mailako bikoteak Legazpiko ordezkarria izango du aurkari.

Aurreko asteburuari dago-kionez, Narbaiza eibartarrak 18-10 irabazi zion Amundarain azkoitiarrari Astelenan jokatutako kadete mailako norgehiagokan; gaur Zestoan du partidua. Eta Larreategi-Agirrebeña senior mailako bikoteak bihar du partidua Biriatuan.

## Aitor Arakistain nagusi Urrakiko auto igoeran

Eibartarrak XXX. Urrakiko igoera irabazi zuen domekan, Silver Car S2 autoarekin. Auto lasterketa zaila izan zen, euria, haizea eta hostoengatik errepidea oso irristakorra baitzegoen. Arakistainek 3:37:9 denbora egin zuen eta, bere atzetik, Aitor Zabaleta bergararrak egin zuen bigarren harengandik segundo batetik gora; postu horri esker, gainera, plaza bakarreko autoen Euskal Herriko Mendiko Txapelketa irabazi zuen Zabaletak, azken sailkapenean eibartarrari puntu erdiko aldea kenduta.



## Gimnasta alebinak Espainiako txapelketan

Gimnasia erritmikako alebin mailako taldeak Espainiako bere lehen txapelketa jokatuko du asteburuan Zaragozan. Taldekako lehiaketa horren bezperan, eibartarrek bigarren postua lortu zuten domekan jokatutako Reyno de Navarra torneoan, pase batean irabazi eta gero. Tania Nagornaiak eta Susana Prietok prestatzen dituzten azken denboraldietako talde gazteena da boskote hori. Lehenengo mailako taldeak, bestalde, Gasteizeko Beti Aurrera torneoan izango du hurrengo erronka abenduaren leian.



Malen Txurruka, Elene Varela, Nahia Arguiz, Saroi Eskisabel eta Teresa Miguel, Reyno de Navarran eskuratutako zilarrezko dominekin.

## San Andres judo torneoaren 39. edizioa etzi

400dik gora judoek eman dute izena dagoeneko Ipuruan domekan jokatuko den San Andres nazioarteko torneoaren XXXIX. edizioan: ez da kopuru makala. Bezperan, toki berean, euskal epaileen eguneraketa egingo da, Kalamuako Manu Agirre-ren eskutik. Aurreko asteburuan, bestalde, Nekane Muguruzak urrezko eta brontzezko domina bana eta zilarrezko bi lortu zituen Amurrión eta Iker Martínezek zilarrezkoa.



**CATALANA OCCIDENTE** Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com

Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

**iturri**

ARDOAK



ETXERA ERAMATEN DUGU

Eibarko Merkatu Plaza - Rialto

Tel. 943 12 05 87






Alex Sarasuaen jokaldia.

## Kadeteen partidu handia waterpoloan

Orbeako waterpolo eskolakoeak maila bikainean jardun zuten Waterpolo Navarraren igerilekuan, azkenean estatuko talde onenetakoen artean jokatzeko duen harrobiko taldearen aurka 10-8 galtzeko. Kirol horretako abangoardian dauden taldeen bideari jarraitzen diote Urbat-Urketronik-ekoek eta, bide batez, Ipuruan, Orbean eta Soraluzen egiten diharduten lanaren emaitza hasi dira jasotzen.

## Somos Eibar Eskubaloiak Trapagaran hartuko du bihar

Zizurren San Antonio Ardoirekin 22-18 galdu eta gero, Imanol Alvarezen mutilek Trapagako bizkaitarrak hartuko dituzte bihar, 19.00etan, Ipuru kiroldegian. Seigarren postuan daude eibartarrak eta, lehen itzulia amaitzeko lau partiduren faltan, hortik behintzat hiru irabaztea espero dute sailkapenean gorantza egiteko asmoarekin.



## Ruibal garaile; Katu Kalek ez zuen asmatu



Azken laurdenean erabakitako partiduan, Ruibalek 37-51 irabazi zion Donibasketi eta saskibaloiko probintziako 2. mailako bigarren postura igo da. Mikel Azurmendi izan zen saskiratzaille onena eibartarren artean, 20 punturekin. Katu Kalek, bestalde, 57-44 galdu zuen Mutrikun, partidu osoan atzetik joan eta gero. Neurketa horretan, Eibarko taldeak Sevillara bizitzera doan Pedro Peña jokalaria agurtu zuen.

## berriak



### ESKIKO FORFAIT-AK

Klub Deportiboko eski bartzordeak denboraldi berrirako iraupen eskiko forfait-ak erosiko ditu Somporten. Forfait-a lortzen interesatuek eski@deporeibar.com helbidera idatzi dezakete. Honakoak dira forfait-en prezioak: 15 urtera arteko umeak, 28 euro (takillan 33) eta helduak, 68 (takillan 85).

### ALPINISMO IKASTAROA

Abenduaren 15ean eta 16an egingo den glaziare eremuko alpinismo ikastarorako izena emateko epea zabaldu dute. Plaza mugatuak dira eta prezioak honakoak: 120 euro Gipuzkoako federatuentzat, 126 beste federatuentzat eta 141 federatu gabekoentzat. Informazio gehiago Gipuzkoako Mendizale Federazioan: [www.gmf-fgm.org](http://www.gmf-fgm.org) eta 943 461 440 telefono zenbakian.

**FAMILIA ABOKATUA**  
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

**Familiako eta ondorengotzetako  
(herentziak) abokatua**

**Dibortzioak**

**Gaitasun-ezak**

**Ondorengotzak**

**Aitatasun erreklamazioak**


**Erregimen ekonomikoa**

Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma  
691 442 424 94 661 22 00

**F**

**Funeuskadi Eibar**

SERVICIOS FUNERARIOS



Bellatokia Funeuskadi Eibar:  
Otarola, 27

Bulgosa:  
Eizaberrin, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**©943 82 15 39 - [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)**

**Funeuskadi**  
El primer servicio funerario de Euzkadi

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao •  
• Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe •  
• Espinosa de los Monteros •





**XABI ZUBIZARRETA** (Eibarko AEK)

## "Ezagutzan pauso handiak eman arren, ez da erabileran islatzen"

*Euskaraz bizi nahi dugu. Eta asmo hori egia bihurtu dadila eskatzeko manifestazioa abiatuko da abenduaren 1ean, 17.00etan, Donostiako Anoeta estadiotik. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deitutako manifestazioaren aurretik ere askok atxikimendua egin dute [www.euskarazbizinahidut.org](http://www.euskarazbizinahidut.org) webgunean.*

**- Zein da abenduaren 1erako deituta dagoen manifestazioa egiteko arrazoa?**

Mezuak argi lagatzen duen moduan, euskeraz bizi nahi dugu, gure hizkuntza delako, natural egin eta natural sentitzen dugulako eta, horregatik, hori aldarrikatzeko asmoari jarraituta deitu dugu manifestazioa. Izan ere, batzuk euskeraz bizi nahi dugu eta horretarako gertu gaude, baina oraindik ere beste hainbatek horren aldeko pausoak ematea falta da, benetako hizkuntza komunitatea osatu ahal izateko. Manifestazioarekin, besteak beste, herritarrei eman beharreko pauso horiek emateko eskatu nahi zaie.

**- Euskeraren normalizazioa lortzeko horrelako ekimenak antolatzea beharrezkoa da oraindik ere?**

Baietz pentsatzen dugu, gure herrian betiko arazoak hor dirauelako: euskeraren ezagutza pauso handiak eman dira, baina gero horrek ez dauka islarik euskeraren erabileran, arlo horretan oraindik asko dago egiteke. Bestalde, administrazioari gure herria euskalduntzeko ahalegin handiagoa egiteko eta euskeraz bizi nahi dugunak babesteko pausoak emateko eskatu nahi diogu.

**- Nolako oztipoak ikusten dituzu normalizazioa gauzatzeko bidean?**

Argi dago administrazioak horretarako ipintzen dituen baliabideak ez direla nahikoa eta, beraz, dauden hutsuneak betetzen joateko denok, administrazioak eta beste guztiok ahalgona egin beharko dugula.

**- Irailean euskeraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko lasterketa egin zen Eibarren. Nolako oroitzapena daukazu?**

Lasterketa eguna igarota, guk oso modu positiboan baloratu genuen. Gainera, parte hartu zutenetako asko umeak zituzten familiak izan ziren eta eurretako askoren iritziak jasotzeko aukera izan genuen. Lasterketa oso ondo egon zela esan ziguten askok. Eibarko euskalgintzan beharrean dihardugunok ildo berean beste jarduera batzuk antolatzen jarraitzeko asmoa daukagu.



## Antzerki irakurria gaur Kultur

**Ernesto Barrutiak eta Blanqui Martínezek** gaur 22.00etan Mario Benedetti eta Federico García Lorca idazleen testuak irakurriko dituzte Arrate Kultur Elkartearen, Maite Arroitauregik txeloarekin lagunduta. Ekitaldi honekin irailean hil zen Elena Suárez, 70eko hamarkadan eurekin batera Grupo Arrate de Teatro taldearen sorreran lagun izan zutena omendu nahi dute. Arrate taldeak Arrate Kultur Elkartearen eman zituen lehenengo pausoak bertako antzokian 29 emanalditik gora eskainita, eta horregatik aukeratu dute eszenatoki hori omenaldirako.



## Bihar abiatuko da Titirijai 2012

**Argentinako Roberto White** eta bere "Criaturas particulares" lanak inauguratuko dute XXX. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia gurean. Berba bariko antzerki irudi ikuskizuna 17.00etan hasiko da Coliseoan eta sarrerak 4 euro balio du. Eta eguaztenean, hilaren 28an, Kolonbiako Manicomio de Muñecos taldeak "Cuidado con la Marimonda", erreketan bizi den eta mendiak eta urak zaindu eta babesten dituen emakume misteriotsuaren istorioan oinarritutako lana taularatuko du 13.00ean Hezkuntza Esparruan.

## Esther Ortiz de Pinedo Topalekuan domekara arte

**Domekara arte egongo dira ikusgai** Topalekuan Esther Ortiz de Pinedo bilbotarraren margolanak Topalekuan, gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Artista EHUko unibertsitate tailerretan Alfonso Cortazar irakasle zuela hasi zen margotzen 1980an eta Leioan Richard-en klaseetan ikasten jarraitu zuen. 2000. urteaz geroztik olio eta tenperak erakusteari ekin zion eta gaur egun ere horretan dihardu.



# EIBARKO PLAZIA

produktu fresko eta kalitatezkoak

# Astero eskaintza harrigarriak!

IBARRIKO PLAZIA

Toribio Etxebarria



## Lehiaketa 3. asteko galderak

Zen abiatan kontatzen ditugu Eibarren sortutako liburuek, pasateak, pertsonak eta ohiturak?

- a) Epistolario 1941-1946
- b) Viaje por el país de los recuerdos
- c) Recordando la guerra. Diario de viaje de un refugiado español

Zer da NASMIA?

- a) Irribelako galeotasuna
- b) Entzainak, udaltzainak, guardia zibikak... orokorrean, ordana mantentzearen ardura dutanak
- c) Koku bat

Toribio Etxebarriak jero eta leku handiagoa hartu zuen Eibariko sozialisten artean, eta berri izan zen Eibariko sozialisten burubakoa bat. Nola sartu ziren sozialistak artearekin Udaletxean?

- a) 1931n
- b) 1903an
- c) 1970an

Izen-abizenak: .....

Telef: ..... e-maila: .....

erantzunak jasotzeko azken eguna: azaroak 29




Juan San Martín liburutegia

# laburrak

## PAILAZOEN IKUSKIZUNA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak agortu egin dira. Pailazoak abenduaren 1ean (16.30etan eta 19.00etan) eta 2an (16.00etan eta 18.30etan) egongo dira Hezkuntza Esparruan "Sentitu, pentsatu, ekin!" ikuskizunarekin. ...eta kitto! Euskara Elkartek eskerrak eman nahi dizkie sarrerak saltzen lagundu duten Tio Palancas, e&m eta Gozoki dendei eta ikuskizun egunetan aparkalekua erabiltzen lagako duen Firestoneri. Jendea-ri tranbia hartzeko eskatzen diote (adi trafikoa dauden aldaketekin) eta sarrera barik ez dela inor sartuko azpimarratu dute.



## ZAPATUKO IPUINA

Bihar 18.00etan Badut Taldeak "Kontu Kontari" ipuin kontalari saioa eskainiko du umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina programari jarraituta. Sarrera libre izango da.

## Euskararen Eguna muralean islatzen

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatze-ko hainbat ekimen antolatu dituzte eta ...eta kitto! Euskara Elkartek, herritar guztien laguntzarekin aurtan Euskararen Hormairudia osatu nahi du. Horretarako, egun horretan udaletxeko patioan 09.00etatik 19.00etara euskerarekin eta aurtan egitarauaren ardatza den Toribio Etxebarriarekin lotuta bakoitzak nahi duena idatzi edo margotzeko txokoa egongo da prest. Horrela, ordutegi berean pleno aretoan egingo den Lexikoiairen irakurketan parte hartzen dutenek zein animatzen diren beste herritarrek bertatik pasatzean

murala osatzen joateko aukera izango dute. Hasiera Jose Antonio Azpilikuetak emango dio, berak marraztutako biñeta batekin.

Horrez gain, 11.00etan Toribio jaio zen etxean, Txirio kale 6an plaka oroigarria ipini-ko dute eta 19.00etan Toribio Etxebarria eta bere mundua gaiari jarraituta mahaingurua egingo da pleno aretoan. Hizlariak Serafin Basauri, Antxon Narbaiza eta Asier Sarasua izango dira. Eta egun horretan jasoko dute saria Toribio Etxebarria lehiaketako irabaz-leek ere. Aste honetako alean azken galdera sorta aurkituko duzue.

## Parte-hartze handia pintura lehiaketan

Domekan jokatu zen XXXV. Aire


Zabaleko Pintura Lehiaketa, Eibarko Artisten Elkartek Udala- ren laguntzarekin antolatuta. Bota zuen euriak goiza kalean margotzen pasatzeko gogo gutxi emanda ere, lehiaketak parte- hartze handia izan zuen maila guztietan. Helduen artean, lehe- nengo saria Txema Gutiérrezek (Lutxana-Erandio) eskuratu zuen, bigarrena Jokin Telleriak (Bea- sain), hirugarrena Pedro Barriok (Caranceja, Kantabria) eta laugarrena Jon Idigorasek (Er- mua). 18 urtera artekoen mailan, berriz, ei- bartar bi, Jone Bengoa eta Arkaitz Bilbao na- gusitu ziren. Eta umeen mailan (12 urtera ar-



te) Jone López eta Salma Losada (biak Eibarkoak) saritu zituzten. Epaimahaia Leire Kareagak, José Antonio Azpilikuetak, Angel Güenagak, José Agustín Larrañagak eta Dionisio Muruak osatu zuten.

## Exhibar domekan zabalduko da

Arrate Filatelia Elkartek urteroko moduan Exhibar sei- lu erakusketa antolatu du sanandresen inguruan. 43. edizioa beteko duen erakusketa filatelikoak estatu osotik etorritako hamaika bilduma batuko ditu Portalean eta aurtan Armeria Eskola omenduko dute anto- latzaileek. Domekan hasi eta abenduaren 2ra arte egongo da ikusgai, ordutegi berezian: astelehenetik barixakura 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta dome- ketan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.



**BOLINTXO  
OKINTEGIA  
GOZOTEGIA**

Eguneroko  
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)

☎ 943 20 36 06 (Legarre)



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

# BEZeRo GUZtiE<sub>N</sub>daKO SanAndRes ZORiontsuak!

943 20 67 65  
Bista Eder, 11

**Oishi**  
si beroa  
*just before*

Eguneko menuak  
Bokatak  
Razioak  
Menu bereziak




CATERING

943 20 67 65  
627 41 78 33  
Menuak gure

**SAN ANDRESAK**  
**KARRIKA**  
IL URTEURRENA

**WARRIOR DE ESTUDIO**  
ZOKETA GADA

**WARRIOR DE KINOKINAKO**  
URTEURREN JAIA  
gustatu hitz  
DJ OKERREKO

**WARRIOR DE CIBERNA**  
SAN ANDRES bezperaz

**WARRIOR DE CIBERNA**  
JABI DELOVE  
89:88tan

**ESTAN GUZTIAK**  
KARRIKATIA  
MAGTUTIAK



**GURE** **LEKU**

Isasi, 3  
20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89



**ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!**

**Akara**  
943 043782

GOCARJAN/PINTXOAK  
EGURKO MENULU/PLATERAK  
DEITAEZUNAK, HARRONTSUAK, SANDWICHAK



**WOK 999**  
TEL. 943-121672 **jatetxea**

Otaola Etorbidea, 3 - 2. solairua (EROSKIren ondoan)

ORDUTEGIA:  
bazkariak (12.00-16.30)  
afariak (20.00-24.00)  
**buffet eskura**

sushi  
frijituak  
plantxa  
txokolatera







**BALKON**

Goizeko 10.00etatik  
**ZABALIK**  
pintxo  
bereziak  
eta girorik  
onena

*Ondo pasau  
Sanandresak!*

**URKIZU, 11**





Kontxi Kerexeta

## Haurrak, pobrezia-aren aurpegi ezkutua

**Azken urteetan** pobrezia-aren aurpegiak aldatzen ari dira; egun lana izanik edota jubilazioa jasota ere, pobrezian aurkitu gaitezke. Pobrezia-aren aurpegi ezkutua diren haurrengan jarri nahi nuke arreta.

Ez dut datu estatistikoekin inor aspertuko, aldiz, azken aldiko zenbait gertaera lotuz familien egoera ekonomiko larriak eta babes sozialaren sistema deusezteak gizarte-aren izango dituen ondoretaz hausnartzera eraman nahi zintuzketet.

Kataluniako mossos de escuadrek 13 urteko "gazte bat" buruan porraz kolpatu eta odoletan utzi zuten azken greba egunean. Bestalde, hiru urtetik gorako aurrek ez dutela gizarte babes berezirik behar erabaki du Madrilgo PPreu gobernuak. Etxetik kaleratzeak atzeratzeko dekretua onartu dute eta hainbat baldintza ezarri babesa jasotzeko. Baldintza ekonomiko guzti-guztiak bete ondoren, familiari buruzkoak datoz eta, horien artean, familiak haur txikiak izatea dago, 0 eta 3 urte artekoak soilik. Haurrak lau urtetik gora baditu, ordea, kalera bidaltzen jarraituko dute orain arte bezala. Azkenik, Lanbideren Oinarrizko Errenta jasotzen duten familietako haurrengan pobrezia duen eraginari buruzko "borondatezko" inkesta egitearen truke supermerkatuak 60 euroko saria eskaini die familiei, txantaia eginez.

Legezko babes osoa duten haurren eskubideak inolako etikarik gabe suntsitzen ari dira agintariak, 4 urterekin gizarte babesik behar ez duen ume eta 13rako gazte bihurtuz.

### ○ Korrika Andoaindik Balonara

Korrikaren 18. edizioa datorren martxoaren 14an hasiko da Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean eta, 11 egun geroago, martxoaren 24an Baionan amaituko. "Eman euskara elkarr" mezua zabalduko du eta, elkarbizitzarako aukerak sortzen ari direlako, omenduko ditu euskara ikasleak. Aurreko barixakuan Bilboko Unesco Etxean egindako aurkezpenean, antolatzaileek AEK.n euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren ikasle guztien merituak azpimarratu zituzten. Hile amaieran emango dute jakitera herriz-herriz eta egunik-eguneko ibilbide zehatza.

## euskararen txokoa

### ○ Europako Batzordearen eskaera

Europako Batzordeak Nafarroan eta EAEn euskararen egoera aztertu du eta emaitzekin txostena argitaratu. Nafarroako Gobernuari eskatu dio gutxienez euskarazko telebista kate bat eta irratia bat bermatzeko; esan dio ere bere betebeharra dela EITB emititzen dela bermatzea eta horretarako kostuak bere gain hartu behar dituela. Euskalerria Irratiak lizentziarik gabe jarraitzen duela salatu du. Batzordeak Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmenak txalotu ditu, baina dio praktikan ez dutela eragin garrantzitsurik izan.

## Su Txikian antzezlanaren asteburuan


**Eguaztenean taularatu zuen Glu Glu Producciones** taldeak "Su Txikian-A Fuego lento" antzezlaren lehenengo funtzioa, Arrate Kultur Elkartean eta atzo berriz ere eskaini zuen ikuskitzuna, Coliseoan. Gaur, bihar eta etzi ere funtzio bana eskainiko dute 20.30etan Coliseo antzokian. Sarrerak 15 euro balio du eta zapatu eta domekako emanaldiak Amañako Jaiak-ek antolatatu dituzte, horietarako sarrerak alde aurretik erosteko aukera dago Kili-Kili eta Caserio tabernetan eta Kros Sport kirol dendan. Galder



Pérezek zuzendutako lana 2001ean Arnaldo Otegi eta Jesús Egigurenek Txillarre baserrian hasitako elkarriketa sekretuetan eta haien ostekoetan oinarritzen da.

## Topaguneak II. Kongresua egin zuen Bilbon

**2010ean eman zion hasiera** Topagunea euskaldunon elkarten federazioak hausnarketa prozesuari. Joan den zapatuan "Federaziotik Mugimendura" lelopean bigarren kongresua egin zuen eta Zuzendaritza Batzordeak proposatuta-



ko ponentziak onartu zituen. Orain urte eta erdi "Euskaldunon Elkarten oinarriparrak" onartu ziren eta horren jarraipena izan dira joan den zapatuan Bilbon onartutako bost ponentziak.

Bozketaren ondoren, ekitaldi publikoa egin zuen Topaguneak, euskalgintzako zein erakunde publikoetako hainbat ordezkarien presentziaz. Gainera, Kongresua aprobetxatu zen Txepetx-i omenaldia egiteko, "ekitaldian omendu dugun Txepetxek etorkizuna eskatzen zuen gure iraganarentzat, eta Topagunetik azpimarratu nahi dugu indarrak batzea eta elkarlana gakoak direla euskarari etorkizun hori emateko", azpimarratu du Mikel Irizar Topaguneko presidentek.

## Euskal Astea Aldatzen

**Abenduaren hasieran Aldatze ikastetxean** Euskal Astea ospatuko dute. Horren harira, beste urte batzuetan bezala, logotipo lehiaketa, euskal jokoak eta beste hainbat antolatuta dituzte. Aurten, gainera, ikastetxe guztia- ren parte-hartzea izango duen lipdub-a grabatuko dute.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, BERNART, atzo sei urte egin zenduaz-en eta. Familixa guztiaren partez.



Ongi etorri, MIREN!!! Azaruaren 8xan gure artera etortziagaittik. Familixa guztiaren partez.




Ongi etorri, MAIALEN Cid Atxa! Hillaren 15ian gure artera etorri ziñalako. Muxu bat etxekuen partez.




Ongi etorri, LEA, hillaren 19xan etorri ziñan-eta. Muxu haundi bana Oihana eta Ander gurasuentzat.




Zorionak, BIKOTE! Merezi daben moduan ospatuko dogu. Patxo potolo bat kuadrillakuen partez.




Zorionak, ENEKO Gómez Chimeno, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Izaro, aitta-ama eta etxekuen partez.




Zorionak, LOREA, zure 10. urtebetetzian. Oso ondo pasau domekan. Muxu haundi bat Libe, Jule, Olatz eta guztion partez.




Zorionak, MARKEL, atzo betetako urtetxuagaittik. Zure pozak zorutzen gaittu. Zaku bete patxo famelixaren partez.




Zorionak, ORIOL, San Andres egunian urtebete egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat zure Eibarko famelixaren partez.




Zorionak, INTZA, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, IZAR, martitzenian hiru urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Laiaren partez.




Zorionak, amama TERE, gaur urtiak egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Maria eta Noraren partez.



Zorionak, NAHIA (bederatzia urte) eta IKER (bost urte) zuen urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NEREA, haraiñegun hamar urte bete zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, MAITANE, hillaren 29xan sei urte egingo dozuz-eta. Aitaxo, amatxo eta Leireren partez.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

23an: 22.30

24an: 19.45, 22.30

25ean: 17.00, 20.00

26an: 20.30

"Bel Ami. H<sup>o</sup> de un seductor"

Zuzendaria: Dedan Donellan

(2 ARETOAN)

23an: 22.30

24an: 19.45, 22.30

25ean: 17.00, 20.00

26an: 20.30

"7 días en La Habana"

Zuzendaria: Benicio del Toro

(ANTZOKIAN)

23an: 22.30

26an: 20.30

"Saga Crepúsculo"

Zuzendaria: Bill Condon


(ANTZOKIAN)

24an: 22.30

25ean: 17.00

"Los amos del barrio"

Zuzendaria: Ben Stiller



## BARIXAKUA 23

### ANTZERKIA

**20.30.** "A fuego lento" (Glu Glu Producciones). Sarrera: 15 €. Coliseoan.

### MARIDAJEA

**21.00.** Krabelin hoteleko maridaje-afarirako autobusaren irteera (afaria 21.30etan). Ego-Gainetik.

### ANTZERKI IRAKURRIA

**22.00.** Ernesto Barrutia eta Blanqui Martínezek Arrate A.T.-ren sorreran lagun izan zuten Elena Suárezen omenez, Maite Arroitauregik txeloarekin. Arrate Kultur Elkarte.

## ZAPATUA 24

### TXISTORRAREN EGUNA

**09.15/22.00.** Kilometro bat txistorra prestatu eta salgai ipiniko da. Egunean zehar kirol erakustaldiak, musika, jokoak. Untzagan.

### BATZARRA

**10.00.** Sortu-ren nondik norakoak erabakitzen joateko batzar irekia. Portalean (ikastaro gelan).

### TITIRIJAI 2012

**17.00.** XXX. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. "Criaturas particulares" (Roberto White, Argentina). Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** Ipuin kontalari saioa: "Kontu Kontari", Badut Taldearen eskutik. Sarrera doan. Liburutegian.

### ANTZERKIA

**20.30.-** "A fuego lento" (Glu Glu Producciones). Sarrera: 15 €. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**23.00.** Barricada. Sarre-rak leihatilan salgai, 25 €. Astelena frontoian.

## DOMEKA 25

### INDARKERIAREN KONTRA

**10.00.** Informazio-karpa: "Azaroak 25 eta genero indarkeria".

**13.00.** Indarkeria salatzeke elkarretaratzea: "Beldur Barik jarrera Eibarren". Untzagan.

### BAKILAUAREN KOFRADIA

**10.30.** Ongietorria eta hamarretakoa Irukin.  
**11.30.** Kalejira, Usartza Txistulari Taldekoekin.  
**12.30.** Kofradeen zin egitea eta Goruntz-en saioa. Portalean. Bazkaria Untzaga Plaza Hotelean.  
**11.30.** Bakailao Txapelketa. Untzagan.

### BERTSO JAIALDIA

**18.30.** San Andres Bertso Jaialdia. Portalean.

### ANTZERKIA

**20.30.** "A fuego lento" (Glu Glu Producciones). Sarrera: 15 €. Coliseoan.

## ASTELEHENA 26

### BAKETIK

**18.30.** Elkarbizitarako ikuspegia izateko ikastaroaren 2. saioa: "Adiskidetzeta". Portalean.

## MARTITZENA 27

### IKASTEN

**10.00.** "Leonor de Aquitania", Cristina Ayuso-rekin. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**19.30.** "Avances que te cambiarán la vida: sexualidad, disfunción eréctil y próstata", Ion Madina eta Javier Azparren Poliklina Gipuzkoako urologoen eskutik. Portalean.

## EGUAZTENA 28

### TITIRIJAI 2012

**13.00.-** "Cuidado con la Marimonda" (Manicomio de Muñecos, Kolonbia). Hezkuntza Esparruan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** Hezteko estrategiak, gurasoentzat. Baikorarekin. Portalean.

### GURASOAK MARTXAN

**19.00.** Harrera Elkarte aurkezteko hitzaldia. Kultun.

## EGUENA 29

### IKASTEN

**10.00.-** "El humor en la literatura", José Domingo-rekin. Armeria Eskolan.

### ODOLA-ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileen egoitzan. Pagaegi, 5-ean.

### AIZKOLARI TXAPELKETA

**19.00.** Poliklinika bikotekako aizkolari txapelketa. Untzagan.

## BARIXAKUA 30

### KARRIKA II. URTEURRENA

**09.00.** Jabi Delove. Karrika tabernan.

### SAN ANDRES EGUNA

**09.00.** XXXIV. San Andres Nekazal Azoka. Untzaga, Txaltxa Zelai eta Ego-Gain.

**12.00.** Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien emanaldia. Untzagan

**12.30.** Plazara Dantzara Erromeria Jainaga eta Narbaiza trikitilarietara eta Kezkarekin. Untzagan.

**13.00.** San Andres lehiaketen sari banaketa.

### AZKEN OSTIRALA

**19.30.** Eibarko Herrirak Azken Ostiralerako antolatutako jaialdia. Txaltxa-Zelaian.

### MARIDAJEA

**21.00.** Krabelin hoteleko maridaje-afarirako autobusaren irteera (afaria 21.30etan). Omenaldia Jaime Barriusori.

## ZAPATUA 1

### PAILAZOAK

**16.30/19.00.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Hezkuntza Esparruan.

## DOMEKA 2

### PAILAZOAK

**16.00/18.30.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Hezkuntza Esparruan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Noiz joan zara mendira azken aldiz? Oroitu ere ez! Gurasoekin edo txikitari egindakoa errepikatzeke ordua duzu.

### TAURUS

Lagun bat mindu duzu. Askotan egia garaiz esatea hobe da, ondorioak lartzak izan daitezke-eta. Akatsa konpondu!

### GEMINI

Gurasoak pozik dituzu: ikasi eta ikasi. Ea horrela jarraitzen duzun kurtso osoan, bestela ez du zertarako balioko-eta.

### CANCER

Kontuz ibili giltzekin, galtzen badituzu komeriak izango dira-eta! Pertsona arraro asko sumatzen da zure inguruan.

### LEO

Pozik bota duzunarekin? Ez da batere ona ezta osasuntsua barruan gordetzea. Ondo egin duzu zu arin geratuta.

### VIRGO

Lagunengan konfiantza gehiago behar duzu. Denak zu modukoak izango balira, zer? Ezingo zenituzke lagunik ere izan.

### LIBRA

Zure azukre koskorra, ilargi betea, hondartza bat, olatuen zurrumurrua. Hori erreala egiteko pertsona bilatu!

### SCORPIUS

Bihurriori, pozik dituzu inguruokak! Dena barkatzen dizute daukazun on aurpegiarengatik. Ez duzu ezer tontotik.

### SAGITTARIUS

Ez zaizu poztasuna gorputzean sartuko. Algara bizian izango zara. Hilabeteetako une txar guztiak ahaztuko dituzu orain.

### CAPRICORNIUS

Indartsu sentituko zara, sasoi betean. Gauza asko hartuko dituzu zure kontu. Ez pasatu: bestela estresatu egingo zara.


### AQUARIUS

Francok oinordekoa aurkitu du zuegan. Nola zara hain zorrotza? Ez itzazu, arren, besteak izorratu eta oporrak hartuazu.

### PISCIS

Bihar kontuz tragoekin! Normalean baino kalte gehiago egingo dizute-eta. Ea ba: ondo pasa, baina ez pasa





## erakusketak

- ✓ **Azaroaren 25era arte**  
*ESTHER ORTIZ DE PINEDO.* Margo erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Azaroaren 30era arte**  
*PEDRO ARRIOLA.* Vietnam eta Kanbodiako argazkiak. *El Ambigú tabernan.*  
*IÑAKI ARANGUIZ.* Argazkiak. *Portalea tabernan.*
- ✓ **Abenduaren 2ra arte**  
*XLIII. EXFIBAR.* Seilu erakusketa. *Portalean.*

## hildakoak

- M<sup>a</sup> Teresa Azkoaga Olabe. 90 urte. 2012-XI-13.
- Bartolome Egurrola Azpiazu. 86 urte. 2012-XI-14.
- Jose Narbaiza Gastelu. 72 urte. 2012-XI-14.
- Telesforo García Martínez. 81 urte. 2012-XI-14.
- Teresa Seara Cid. 80 urte. 2012-XI-17.
- Vicente Egurrola Bustinduy. 88 urte. 2012-XI-17.
- Jose Luis Puerto Díez. 59 urte. 2012-XI-18.
- Sara Padierna García. 81 urte. 2012-XI-18.
- Jesusa Monge Salaberria. 90 urte. 2012-XI-20.

## jaiotakoak

- Paula Irina Bejarano Trujillo. 2012-XI-11.
- Yara Marcos Velasco. 2012-XI-12.
- Ibai Quicios Poza. 2012-XI-13.
- Irene Zubiaur De los Ojos. 2012-XI-13.
- Paule Gesalaga Aranberri. 2012-XI-13.

## SUDOKUA

			1	4	7			
		5	6	9				
8			2				1	
9							7	
3	4	7				1	2	5
	5							8
	9			3				1
				6	2	8		
		6	4	7				

## farmaziak

- ✓ **barixakua 23**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 24**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 25**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 26**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- ✓ **martitzena 27**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **eguztena 28**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- ✓ **eguna 29**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- ✓ **barixakua 30**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- ✓ **zapatua 1**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 2**  
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **astelehena 3**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 4**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztena 5**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunerok: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13-etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Babes ofizialeko pisua salgai Amanan. 70 m<sup>2</sup>. Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igoailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdigunean edo Urkizu aldean. Tel. 602-490595.
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. Tel. 608-474923.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 22 m<sup>2</sup>. Prezioa adosteko. Tel. 671-258740.
- Aparkatzeko plaza salgai Txomon. Tel. 658-710898.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Sarbide erraza. Tel. 670-793312.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 618-050902.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da umeak zaindu eta klaseak emateko. Tel. 638-855268.
- Neska euskalduna eskaintzen da Gabonetan umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka, goizez eta asteburuetan. Tel. 699-232823.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, eraiakuntza... Tel. 660-213652.
- Emakumezkoa eskaintzen da erro-pa konponketarako egiteko. Tel. 688-841146.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 605-720298.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Esperientzia eta titulazioa. Tel. 650-870384.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 654-281645.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 649-770161. Conchi.
- Emakumea eskaintzen da plantzan egiteko. Tel. 650-565186.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile eta hoteleko kamarera jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
- Mutila eskaintzen da mediku-bisitari modura, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 654-075163.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 695-347162.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-182711.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldean. Erreferentziak. Tel. 686-610074.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 699-094626.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean eta kale-ateratzeko. Tel. 688-812845.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 658-456861 eta 606-724484.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 686-052084.
- Sasoiko mutila eskaintzen da mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko. Tel. 699-690965.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldean. Tel. 627-052945.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-176256.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-244331.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, kamarera moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-720298.

## 4.2. Langile bila

- Argazkilaria eta kazetaria zaletuak behar ditugu webgune berri baterako. argazkibat@hotmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestakuntza: EGA, IVAP, HABEren mailak. Baita umeentzat ere. Tel. 620-608065.
- Arlo guztietako klase partikularrik ematen ditut. Tel. 602-873769.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Mutsy markako silla (100 euro) eta kapazoa (200) salgai. Aukeran, osagarriak (merke). Tel. 669-208763.
- Autorako segurtasun aukia, 1 taldekoa, isofix-arekin salgai (70 euro). Chicco markakoa. Tel. 669-208763.
- Dibal Novaplus markako komertziorako balantza salgai. Tel. 676-753898.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Pedalik gabeko bizikleta zuria galdu genuen Kulturako parkean. Imaginarium markakoa. Tel. 699-532243.

### 6.4. Bestelakoak

- Ingelesa ikasten diharduen euskaldunak euskara ikastea interesatzen zaion ingelesa dakien norbait ezagutu nahiko luke, hizkuntza trukea egiteko. Tel. 653-705096.

### OHARRA

**Abenduaren 1etik aurrera IRAKASKUNTZAKO ESKAINTZEN arloko iragarkiak 10 euro kobratuko dira (lau astetan kaleratzeko).**

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

# CAPI

## Gorputz tratamenduak

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa

### LASER DEPILAZIOA

30 euro ZONA


- Aurpegia
- Izterondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea
- Bizkarra
- Gerrialdea
- Sorbaldak
- Gluteoak

**Hanka osoak  
+  
Izterondoak**

90€

30€

- Ezpaina.....10€
- Begitarte.....10€
- Alba lerroa.....15€
- Hanka erdiak.....60€
- Besoak .....60€




LEHEN

ORAIN


LEHEN

ORAIN



lehen

orain




lehen

orain

### TEKNIKAK:

- Kabitazioa
- Radiofrekuentzia
- Laser lipolitikoa




BETILE LUZAPENAK  
GEL ATZAZKALAK  
IA BETIRAKO MANIKURA

### Masajeak

- OSTEOPATIA
- KIROMASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOAK
- REFLEXOLOGIA

### Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- **MANTXAK (berria)**



## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

• Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserrria.com](http://www.zeletabaserrria.com)

# IZANE

dekorazioa

TORIBIO ETXEBARRIA, 17  
Telf: 943 203868




**%20** ko **deskontua**  
**ARTIKULU**  
**GUZTIETAN**



# DIRDAI

bitxitegia

Toribio Etxebarria, 21  
Tel. 943 20 75 33



*Finantziario  
formulak galdetu*



**GUESS**

**CPS /sport**

**TOY WATCH**

**CLUB**

**Tondenco**

**ARHAND BASI**

**WATCH & COLOR**

**ALFEX**